

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXIV Zenbakia.

1993

Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

| | Orr. |
|--|------|
| Euskal izenak erdiaroko idazkeran. - Latiegi tar B. | 1 |
| Izaera, izakera, izanera, betikotasun. Urrestarazu tar A | 11 |
| Euskeraren sustarrak. - Segurola tar S | 14 |
| Erri euskeraren azterketa. - Arzelus tar Amale. | 20 |
| Mungi aldeko esakerak eta Ume kantak- A. Legarreta | 28 |
| Bizkaiko euskerearen izkerak. - Olazar tar Martin. | 33 |
| Bedarkiak eta abereak. - Onaindia tar S. | 39 |
| Koprogenak. - Maxiatzalle, A. Arrinda. | 46 |
| Auritz. - Jose A. Garate. | 63 |
| Liburuak. - (Barruko azalean) | |
| Ikusi, entzun eta irakurten diranak (Barruko azalean) | |
| Esaldi jatorrak. - Oñaribia tar Manu. - (Kanpoko azalean) | |

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA

C. LARREATEGI 14 - BILBAO

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)


**ELIZAK ETA ESTADUAK
BAT EGIN ZUTEN
DENBORAKO ELIZA**

(306'garren urtefik 476'garren urtera)

Eliz-Edesti-Sorta

Ara emen LATIEGI'tar BIXENTE'K
idatzita, egunotan agertu dan liburua.
Seigarrena, Eliz-Edesti-Sorta saillean.
"San Iñazioaren denborako Eliza",
"Denbora berrietako Eliza",
"Demokraziaren denborako Eliza",
"Gure denbora auetako Eliza"
"Apostoluen eta martirien denborako Eliza"
ziran oraiñartekuak.
Eta oraingo au
"Elizak eta Estaduak bat egin zuten
denborako Eliza", seigarrena.
Eta Jauna lagun, azkena izango ez dana.

Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Aldundia

Laguntzaileak



EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

872'GARREN URTEKO BIGARREN LARRUKIA (Jarraipena)

"EUSKERAZAIÑTZA"ren azkeneko zenbakian azterturik utzi genituan larruki ontan agertzen zaizkigun toki-izen batzuk. Ikus, oraindik aztertzeke gelditzen zaizkigunak:

| | | | |
|-------|------------|-------------|-----------|
| LAUSA | ÑAPOÑE | VILLA MATE | LARRATE |
| GOBIA | TOVIELLAS | VILLALUMÑOS | MAÑATA |
| BARO | RUSIOÑ | QUEÑQUEZES | SCAFLIETA |
| VARGA | LASTRAS | PETRA LATA | RUSIOÑ |
| MEÑA | LUMBAÑA | SUB PEÑÑA | FOÑTAÑAS |
| IMAÑA | CORMEÑZAÑA | DOÑDISLE | |

Sartu'eiegun ortza zerrendako toki-izen oietako batzuei.

Izen oiek, ordea, euskaldunak ote dira?

Batzuk, bai, agiri agirian: Larrate, adibidez; edo Gobia; eta Mena. Ez ain agirian beste batzuk, Baro'ren antzera. Eta gaiñerakoak, zeuden tokia garai artan euskalduna zalako, edo itxuraz aldatutako euskal-izenak, edo euskal izenen lateraketa dira, ots, latiñera itzultitako euskal-izenak.

Latiñez idatziak bait daude IX mendeko larruki auek danak, orduan ez gaztelarak ez beste erromantzerik ez zalako. IX mendean, beste mende bat edo b; bearko dituzte oraindik, mundura sortzeko, gaztelararen aurretiko erromantzeek, iñoiz gaztelararen aurretik erromantze bat izan ba'da.

Badakit, izan ornen zalako erromantze orren sorketa, gaztelera aspaldiko izkuntza egitearren, VIII menderaiño eraman nai duanik badala. Baiñan ori uste duana, ametsetan dabil. Eta, gaizki itzegindako laterari esaten badio erromantzea, orduan, erromantzea latiña bezain zarra dala aitortu bearko du. Baiñan, arraultza oilloa ez dan bezala, gaizki itzegindako latiña ez da "erromantzea".

Asi gaitezen zerrendako lenen izenetik.

LAUSA._- "... presimus presuras in iorrtibus, in montibus, sernas in LAUSA, et vineas in CASTELLA": "Artu genituan iturri, mendi eta landu gabeko lurra Lausa'n, eta mastiak Gaztelerrian".

Iru gauza argitu nai ditut aurrera jarraitu aurretik:

1.^a: "Castella" izen orrek zentzu aundirik ez duala IX mendeko dokumentu batean. XII mendean sarturik egotea baleike. Mende ortan asi bait ziran larruki auek aldakuntza sakonak jasozten.

2.^a: IX'garren mendean larruki au idatzi zuan lumalariarentzat —edo gero XII'enean larrukira "Castella" itza sartu zuanarentzat— LAUSA ez zala GAZTELA'ko lurra. Ederki bereizten bait ditu Lausa eta Gaztelerria.

3.^a "Presuras" ziralako aien misterioa:

"Presimus presuras" diosku larrukiak; euskeraz "artuketak artu genituan" esango ba'lu bezala.

"Presuras", erdiaroko lateraz, "jaberik gabe zeuden lurrei" esaten zitzairen. Berdin jaberik gabe zeuden baso, mendi, larre, errekatxo eta iturriei.

Aro artako larrukiek erakusten digutenez, ugari ziran Euskalerriko ego-sarkaldean orrela jaberik gabe zeuden ondasunak. Zergaitik jaberik gabe? Jendeak lurralde aietatik iges egin zualako, esan oi da.

Ta? Zergaitik iges egin zuten jende aiek? Arabitarren bildurrez, erantzun oi zaió galde orri.

Ñerj, berriz, erantzun ori ez zait sekulan atsegiña izan. Arabitarrek ez zuten beñere Euzkadi'ren ego-sarkaldean orrelako bildurrik sortu. Ikusi dugu zeñen lasai bildu ziran VIII mendearen erdiko lekaiume aiek Lausa baiño askoz egoalderago zegoan Tiron ibaiaren ibarreko lekaimetxe artara. Ikusi dugu nola bate-re bildurrik gabe indartsu bizi zan Oka-Mendietan, Arabitarrek irabazitako lurren muga-mugan, Donebixente'ren lekaidetxe ospetsu ura.

Orain arte aztertu ditugun larruki guztiek erakutsi digute —eta orj erakutsiko digute aztertzekoak ditugunak ere— lurralde auetan ez zala arabitarren bildurrik izan. Ederki eutsi bait zieten Araba'ko euskaldunek Bureba'ko lurretan arabitarren urteroko erasoai.

Alare, Araba'ren Sarkaldean, autrigoen Euskalerrian, jaberik gabe zeuden ondasunak asko zirala zalantzan ipiñi ez daitekean gauza da. Orduango dokumentu guztiek bait diote "presimus presuras" edo "jaberik gabeko ondasunen jabe egin giñan" ori.

Ñoren bildurrez iges egin ote zuten bá ondasun aiek jabeek? Ez arabitarren bildurrez. Ori esaten dute edestilari guztiek, batez ere españi-zaleek, euskaldunok Españi'ren "gloriosa reconquistaren astapenera sartuz, euskaldunok Iberi'ko beste guztiak bezain "españolak" gerala adierazteko.

Ori, ordea, esan dedan bezala, eta esan ditudan arrazoien gaitik, ez zait beñere egia iduritu.

Ñoren bildurrez iges egin zuten bá lurralde aietako jendeek? Bisigoten erasoen bildurrez. Arabitarrek baiño askoz etsai gogorrakoak izan bait ziran euskaldunentzat bisigotak.

Pozik ikusi al izan dut, ori Liste izaten ez naizela bakarra. Adiskide maitea dut aspaldi Mikaela Portilla andereño gazteiztarra. Edesti-iztian doktore dana; lan asko eta ederra egin duan irakasle ta ikerlaria. Ez du Araba'ko edestia berak bezala iñork ezagutzen. Ain zuzen gai auetaz itzegiten duan liburu baten billa nere lan-gelara agertu zitzaidan, biok adiskide aundia dugun Anjel Ibisate apaiz jakintsuarekin.

Ez dakit nola, "presuras" auen aipua egin zuan norbaitek. Nere ustez, on_
dasun aien jabeek arabitarren bildurrez ez baiña bisigoten bildurrez iges egin
zutela, esan nion nik. "Jakiña bá, Bisigoten bildurrez iges egin zutela!", oi
egin zuan berak.

LAUSA, gaur Burgos'ko iparraldean Araba'ko Baldegobia edo Gobia-
ran'ekin muga egiten duan aran zabal bat da. Toki-izen euskaldun asko geldi-
tzen da oraindik aran artako bazterretan.

Lausa'ri LOSA esaten zaio gaur, eta orrela esaten zitzaion larruki onen IX
mendean ere, "O" izkia oso maiz "AU" idazten bait zuten orduan.

"LAU"z asten diran izenak baditugu. Orrela, Lausti-Erreka Gipuzkoa'ko
Ataunen auzo bat zan joan dan mendean, Madoz'ek dioskunez. Baiñan "lau"z
asten diran izen oiek ez digute balio, Lausa LOSA dan ezker.

'Losa, Enkarterrietako Truzios'en jatorrian duan abizen bat dugu.

Losarte, berriz, gaur Kolonbi'n bakarrik bizirik diraun abizen euskalduna,
Kerexetaren iritziz. Kerexetaren iztegia eta beste iztegieta orrelako abize-
nak eta toki-izenak aurkituko dituzu: Losuaga, Azkoitin 1415'ean agertzen
dan abizena.

Losue, Kerexetaren ustez, Lasuen abizenaren aldaketa ornen da. Bai ote?
Ez ote da Elosue'ren aldakuntza? Karistiarren Losue eta bardulitarren Losua,
biak izen bera dira. Azkeneko au Elosuaren aldaketa dala esango nuke nik ez-
pairik gabe. Ez ote da Losue'rekin berdin gertatzen?

Elosua zer dan? Elortsua, noski. Elorri askoko lekua.

Losao, Naparroa'ko Erribera'n errekatxo bat da; Lasao, Gipuzkoa'n Uro-
la'ren ibarreko auzo bat. Losao eta Lasao, biak itz bat bera dira eskierki. LATS
itzak ainzuzen errekatxo esan nai du. Ederki legoke, Erribera'ko Losao'rentzat,
"o" atziki toki-adierazle bat dalarik, Losao "errekaxotegi izango bait litzake. Ez
dakit Lasao gipuzkoarra, Urola'ra lats bat sartzen dan tokian dugun.

Bi izan oietako "Lats" ori, ordea, "latx" izan daiteke. "Latx", "Latxa" Gipuz-
koa'n, kizkurtiz inguruko landare aundiagoei eltzen dieten landare oietako bat
da: "enrredadera" bat, gaztelera'zko itza erabilliz. Latxaga, beraz, "latx ugariko
lekua" da.

Badira oien antzeko izen geiago gure lurraldeetan. Amaitzeko, esan deza-
gun, erromatekoan, Losa, izen euskalduneko jainkeme bat zala, Naparroa'ko
Burumendi'n agertutako arri-ol bateko idazkiak dionez.

Arrizko ol ori idatzi edo idatzierazi zuanaren izena ez omen da ongi irakur-
tzen, baiñan "Masillet"en antzeko zerbait izan omen daiteke. Orrela ba'da, ona
idazti orrek dioskuna:

"Masillet, Losae V (otum) S(olvit) L(ibens) M(erito)". Lenen-izki edo iniziak
auek irakutzeak batere merezimendurik ez du, oso maiz agertzen bait dira
erromatarren arri-oletan. Eta, euskeraz, au da idazti orren zentzua: Masillet'ek,
Losa'ri merezita eskeiñi ziona, pozik betetzen du".

Losa, ordea, ez ote da LOZA'ren aldakuntza?

Loza, Naparroa'n Ansoain'go alor baten izena da. Eta Araba'n, Kantauri
mendi-katearen iparraldean, Peñazerrada edo URIZARRA'ren alboan dugun
erri'ko baten izena. 1.025, Kukulla'ko burni-barren larrukian agertzen da len-
dabizi. Gero, 1.257'ko larruki batean, LOCA agertzen zaigu idatzirik.

Ernel irakurle: "C" ori, erdi "Z" eta erdi "S" bezala irakurri bear da. Orregaitik, errez izan daitezke beraz izen bat bera gaur Burgos'ena dan LOSA eta Araba'rena izaten jarraitzen duan LOCA errien izenak.

Lozalaya, Errioxa'n Ezkarai'ko auzo bat da. Lozaran, Naparroa'n Basaburu Nagusian, Igoa'ko toponimo edo toki-izen bat.

Loza, eta Losa, "L" edergarri bat aurretik dutela, "pastizal", ots, "larre" esan nai duten "oza" eta "osa"tik ornen datoz, etimologiari batzuen ustez. Ez zait etimologi atsegiñegia gertatzen.

Beste batzuen ustez, "E" galdu duan ELORTZA'tik ornen datoz. Baleike.

Ni, bildur aundiz, ausartuko nintzake beste etimologi batera.

Kerexeta'k dionez, LOSA, Enkarterrietako abizena, LOYOSA bezala ere agertzen ornen da. Era ortan, ezpairik gabe, askoz euskal-itxura aundiagoa du. Kerexetari jarraituz, Losa Loyosa ba'da, -eta errez izan daiteke orrela-, "TSA" eta "TZA" atzizki ugaritasun adierazleak diralako, nik Loyosa ori LOITSA dala esango nuke, ots, "loi askoko lekua". Ortaz, LOSA, LOITSA eta LOIOLA, zentzu bat bera duten izenak izango lirake: erderaz, "lodazal".

Mitxelena'k ez digu deus esaten.

QUENQUEZES.- "Sancti Iohanne de Quenquezes". Lerrotxo batzuk aurrerago, erri oni QUIENCOZES esaten zaio: "ad illo petrone qui summat ad Quiencozes": "Quiencozes'en gaiñean dagoan arrizat artan".

(Itzulpen au ez da ziurra, erdiaroko lateraren iztegiek ez bait du ez "petro"rik ez "summo"rik aipatzen, eta latera klasikoarenek, berriz, itz oietako bakoitzari, gure arazo ontarako balio ez duan zentzua ematen bait diote: beti eman zaiena, baiñan guri, orain, balio ez diguna).

Gaur-egun erri orri QUINCOCES esaten zaio. Loza-aranaren OTEO deritzan udaleko erriska bat da.

Bere izenaren erdia, QUINQUE latīña du: "bost". Beste erdia, OZES, zer ote du?

"Bost Ozes" orri bigarren erdia argitu bearco diogu, al ba'dugu beintzat.

OZ bera -H'z idatzia- Araba'n Añana'ko Gatzaga'n abizena dugu. OZE, Euskalerriko toki-izen eta abizen askotan agiri zaigun itza da. Adlbidez OZERIn eta OZERINJAUREGI Bizkai'n Arrati'ko abizenak dira; baiñan asieran "oze" duten euskal-izenak asko dira: Ozenda, Ozendain, Ozendo, Ozerea, Ozin, Ozinalde, Ozeta (Ozaeta'ren aldakuntza?)...

Ozaeta, Arrasate'ko Udala'n auzo bat eta Bergara'n torre bat izateaz gaiñera, Araba'ko Barrundi aranean erri bat ere bada.

Iztegietan aurkituko dituzu orrelako izen geiago.

Erri oien etimologia eratzeko, OZE eta OZA zer diran jakin bearco genduke.

"OZA" zer ote da Euskeraz? Erderaz "grama" esaten zaion belarra ornen da, Lopez Mendizabal'dar lxaka nere adiskide zanak dionez. Ez dakit non aurkitzen zituan orrelako itzak. Ez bait dira nik erabilli dezazkedan iztegi ugarietan agertzen.

Gaiñera, QUINQUE OZES --"oze" eta "oza" gauza bera ba'dira- "Cinco Gramas" itzultzea, oso etimologi parregarria iduritzen zait.

Mitxelena'k OZAETA aipatzen du. Baiñan, soilki "eta" zer dan esateko. OZAR zer izan daitekean ixilik utziz!

Ta? "OZE"? Zer ote da "OZE"? Euskeraz "ozar", sasiaren beste izen bat ornen da. Gazteleraz, "zarza". Eta "ozar"tik "ozer" ornen dator, eta "ozer"tik Ozerin adibidez. Eta "in" atzizki toki-adierazlea dalako Ozerin, "zarzal" ornen da. Orrela dio beintzat, ez dakit nolako eta nongo arrazoiz, Lopez Mendizabalek. Kerexeta'k dioskunez, berriz, "Ozerain", "Ozerin"en aldakuntza dugu. Eta baita "Azorin" ere. Ez ote da alderantziz "Ozerin" "Ozerain"en aldakuntza? "Ain" atzizki ugaria bait da Euskalerrian.

Alatagutziz, QUINQUE OZES "Cinco Zarzas" izan daitekeala esatera... ez naiz ausartzen.

Ez ote dator zailtasun guztia "QUINQUE" ori gaizki idatzirik egotetik?

Larruki auek gaizki idatzirik egotea oso sarri gertatzen dan gauza bait da. Ikusi dugu, larruki ontan bertan, iru lerroren tarte laburrean nola gaizki idatzirik agertzen dan aztertzen ari geran izen au: QuEnQUEzes aurrena, eta QuiEnCOzes gero.

Beste zailtasun-iturria, QUENQUEZES edo QUIENQUEZES ori, izen euskaldun baten itzulpena izatean egon daiteke. Zer ote zan lenengo lumalari arek idatzita beste bigarren batek XII mendez gero latiñera QUINQUE itzuli zuan itza?

k k

VILLA MATE.– "... usque ad Villa Mate". "Villa Mate'raiño". Berealaxe ordea, aapaldi berean, lau lerroz aurrerago, erri edo etxe orri VILLA MACTE esango dio: "... usque pergit ad Villa Macte".

Esan dizut, larruki zar auetan maiz aurkitzen dirala gaizki idatzitako izenak. Oraingo ontan zein ote zan toki aren egiazko izena? Villa Mate, ezpairik gabe. Bigarren idazketan izen ori, lateraz idatzitako dokumentu batean sarturik dagoalako, nabarmenki latera-itxuraz jantzirik bait dager.

Villa Mate euskal-izena dan? Bai beintzat MATE.

Ikus ditzagun izen ori daramaten abizen eta toki-izen batzuk: MATEGIA, mendi baten egi edo malda bate izena dugu Naparroa'ko Jaurrieta'n. Erri berean, MATEKIA bat bada. MATEKOTXOPEA, Araba'n Zigoiti araneko Etxabarrri'n. MATATEGI, abizena da. MATAZARRE, Naparroa'n Sakona'ko Arbizu'n toki-izena. MATAUKO Araba'ko lurralde aaeuan erri bat.

Logikan "indukzio-legea" esaten zaionaren araura, aitor dagigun, bildurrik gabe, izen euskalduna dala MATE.

Zer esan nai ote duan jakitean dago kokka.

Ortarako, Mitxelenaren laguntzarik: ez dugu. Gauza zailletatik iges egiten bait du gure Koldo'k.

Lopez Mendizabal'dar Ixaka bai, ongi ala gaizki, saiatzen da beintzat korapillo orri askapena billatzen: "MATA"ren "M"a edergaillu utsa ornen da. "ATA" berriz "sasi" edo "ote"ren aldakuntza ba'da, larrukiko Villa Mata, OTA-URI ala SASI-URI izango litzake.

Matauko aipatu dut. Araba'ko erriska. "KO", "N"ren atzean "GO" biurtzen dan atzizkia, toki-adierazle bat da.

Ta..., bat batean, atzizki orrek Gazteitz'en nere etxearen aurrean gertatua gogoerazi dit. Tupikiz "Plaza de Juan de Ayala" idatzi zuan udalak izen ortako enparantzaren alboan. Eta, euskeraz, "Juango Ayala Plaza". Esan nion alka-

teari, berarekin topo egin nuan batean: "Or, alkate jauna, ez du Plaza de Juan de Ayala" jartzen. Or "Plaza de Ayala que está en Juan" jartzen du". Berealaxe kendu zuten iragarki ura.

MATAUKO zer ote da? "U", "O"ren aldakuntza, ("arru" = "pedregal", ondarru = arenal), atzizki ugaritasun-adierazlea dalako, "mata" otea edo sasia dala egia balitz, Matauko, "El (Pueblo) del Argomal" edo "El (Pueblo) del Zarzal" izango litzake. Bañan... inguru artako lurra nekazaritzarako lurrik onenetakoa bait da, ez dut uste an otadi ala sasirik sekulan izan danik.

Ez dakit etimologi orretaz zer pentsatuko duzun. Okerra iduritzen bazaizu, jakin ezazu nik neronek ere ez nukela bere alde sos bat jokatu. Baiñan..., beste batek obeagorik asmatzen ez duan bitartean, or dago beintzat nere ori.

MENA.-- "Et presimus presuras in Castella, in Lausa et in Mena". "Presimus presuras" ori zer dan, goraxeago esanik utzi dugu. Mena berriz, gaur Burgos'en dagoan aran polita, aldizkari onen beste zenbaki batean aztertu genduan. Neri emen, larruki onek, len Gaztela eta Losa bereizi dituan bezala, orain Gaztela'tik Mena ere zeinñen ederki bereizten duan azpimarratzea zait ardura. Gauza bat da Gaztelerria. Beste bat ordea Losa eta Mena.

Mena'k, Bizkai'ko Enkarterriekin izan oi ditu bere arreman guztiak. Losa'k, bere alboko Gobiaren'en bitartez, Araba'rekin.

Danadala, autrigoitarrak dira errialde aiek danak.

VILLA lumnos.-- (Orrela. Dakuszun bezala idatzirik). "Sancti Martini de Villa lumnos". Ez du itzulpen-bearrik. "Lumnos" ori zer ote dugu? Bai ote du Bizkai'ko LUNO'rekin zer ikusirik? LUNA, Araba'ko Kuartango'n erri bat da. Lunagoitia, berriz, Lunagoitia ere izan daitekean abizen bat. "O" "A" biurtzen bait da itz bikoiztatuetan: Arto+buru, artaburu; asto+buru, astaburu; osto+pe, ostape; garo+di; garadi, ardo+kupela. ardakupela; mando+zain, mandazain; etabar.

Lunagoitia eta Lunagoitia'z gaiñera, badira orrelako izenak ugari Euskalerrian: Lunivilla, 1.025'ko larruki batean, gaur Nubilla esaten zaion Araba'ko errixka da, Luniorteta, Naparroa'ko Belaskoain'en Arga ibaiera sartzen dan latsa, ots, errekatxo; Lunantu, 1.025'ean, gaur ezabaturik datzan Araba'ko erri koxkor bat zan. Erriska orri, 1.057'an Lulantu esaten zaio; eta 1.713'ean, Dulanto: "Nuestra Señora de Dulanto".

LUNA bera, gaur, Araba'ko Kuartango'n Arkamo eta Gillarte izeneko mendikateak alkartzen diran tokian dagoan errixka bat dugu, eta Aragoi'an, Ejea edo Exea'ren alboan, baskoien lurrean beraz, aurkitzen dan erri bat. Luna aragoitarra, errege euskaldun batek irasia izan zan: Aragoi'ko I Santxo Ramirorena'k, Naparroa'ko III Santxo'ren billobak. Exea'koak ziran ain zuzen I mendean, Domiziano inperatore zala, Erroma'ko Jaurlaritzak saritu zituan "Turma" edo talde artako gudari zaldun baskoiak.

Luna, abizen euskalduna ere bada, batez ere Aragoi'an zabaldua. Luna izan ziran, eta aragoitarrak ainzuzen, antziñako iru gizakume ospetsu:

Pedro Luna, XIII Benedikto bezala ezaguna dan sasiatasantua.

Jimeno Luna, sasiatasantu aren osaba, Aragoi'ko II Jaime'k Naparroa'rako enbaxadari izendatu zuan elizgizona.

Ageda Luna, Korella'ko lekaimetxea irasi eta bertan abatema izan zana. Inkisizioak baituta, espetxean "tormentuan", ots, oiñazeketakoan, il zan gaixo.. 1.722'garren urtean.

Zer ote da, azkenean, gure larrukian aurkitu dugun Villa "lumnos" ori? Zergaitik neri Bizkai'n karistiarren LUNO, Araba'n autrigoitarren LUNA eta Aragoi'an baskonitarren LUNA gogoerazi dizkidan?

Lopez Mendizabal'en ustez, Luno, -badaiteken gauza-, Luna'ren aldakuntza ornen dalako, eta gaur-egun Bizkai'ko Luno'ri erriak LUMO Esaten diolako.

Losa'n zegoan "Villa lumnos" "VILLA LUMOS" ote zan?

Ta? zer ote da Lumo edo Luno orren etimologia?

Oraingoan ere Mitxelena'ren laguntzarik ez dugu. Ez bait du ez Luno'rik, ez Luna'rik, ez Lunagarai'rik aipatzen, ezta "luno"tik edo "luna"tik sortututako onik bat ere.

Lopez Mendizabal'ek -ez dakit nondik aterata- "ANA" "pasto" dala dio. Ortaz, LUNO, ("L" edergaillua +- "pasto" esan nai duan "ANA" + "O" atzizki toikiadierazlea), LARRE izango litzake: "pastizal", gazteleraz.

Milla aldiz zurgurkiago, Estornes Lasa'tar Bernardo'ren "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco"k, bai Luna eta bai Luno, "de etimología problemática" dirala dio.

Bat nator iztegi orrekin. Ez bait dut nik ere, "problemática" edo "arazo__marazo" au era egokian askatzeko giltza ziurrik.

* *

PENNA.- "... de latus Penna usque pergit ad Villa Macte": "Aitzaren albotik Villa Macte'ra iritxi arte", eta PENNOCO, "... deinde ad tlo Pennoco super valle de Gobia": "Azkenik Gobia aranaren gaiñeko Aitz Txiki artaraiño", ardura aundiegirik merezi ez diguten itzak dira. PENNA, euskeraz, "aitza" esaten dugu, eta PENNOCO, "aitz txikia". Itz euskaldun auek, "aitz" eta "aitztxiki" --edo, agian, "aizko"- lateraturik eman zizkigun lumalari zar arek.

Alare, Pennoco orren itsatseko "co" ori, nere ustez, euskeraren "KO" atzizkia bera da. Euskeratik erromantzerara eta gero erromantzetik gaztelerara igaroa. Ez dezagun aztu gaztelera Euskalerrian sortu zala.

Gaztelerazko elerti edo literaturan, XIII mendean agertzen zaigu lendabizi, "zati" itz euskaldunari loturik: Bedzeo'ko Gontzal olerkari errioxatar euskaldunaren poema bitan ainzuzen.

Onela dio "Silos'ko Domingo Donearen Bizitza" abesten duan olerti-lanaren 105'garren aapaldian:

"Fué a Sancta Maria el varon benedicto;
Non falló pan en ella, nin ningun otro victo.
Demandaba almosna como romero tito.

Tosdos le daban algo, qui media qui zatico".

(Gaurko gazteleraz "victo" alimento, "almosna" limosna, "tito" atento, eta "qui media" ori "quien media hogaza (de pan)" dirala esaten ba'dizut, ederki ulertuko duzu bere ibilkera sendo, bizkor, azkarrean gure bertsolarien olertikerearen antz aundia duan aapaldi ori.

Onela dio, berriz, Mezako Sakramentuari egin zionaren 275'garrenean.:

"Despues el sancto clerigo el que la missa canta

Dando grandes suspiros tomo la hostia sancta,
Quebrandola dos veces luego que la levanta:
Fagela tres zaticos en lo que lo quebranta".

Bertzeo'ko Gontzal ospetsuaren atzetik, ura bezain ospetsua, Juan Ruiz "Hita"ko Artzipreste" edo goibereterra datorkigu. Ondo ezaguna da bere idazkietako bat: "Libro del Buen Amor" izen-daramana. Ona zer dioskun, Lazaro ta Epulon'en parabolaz ari dalarik, poema ortako 247'garren aapaldian:

"Por la grand escaseza fue perdido el Rico,
Que al pobre Sant Lazaro non dio solo vn gatico;
Non quieres ver nin amas pobre grand nin chico;
Nin de tus tesoros non les quieres dar un pico".

"Escaseza", "zekenkeria" da, eta aapaldiko irugarren bertsoa onela euskeratuko nuke nik:

"Ez dituzu maite-ta, ezin ikusi duzu txirorik,
ez aundi ez txikirik".

Ederki sartu ziran, bai "zati" itza eta bai berari erantsirik "ko" atzizkia ttipigarrira Gaztela'ko erderara. Ikus, adibidez, onako ale auek. Aurrenekoa Juan Ruiz beraren olerkitik artua da:

"Bien sé que es verdat vuestro proverbio chico
que el romero fito siempre saca buen zatico".

Eta beste au: "Del pan de mi compadre, buen zatico a mi ahijado" ("Refranes que dicen las Viejas". RH XXV, p. 153).

Beste asko aipatu genezazke, XVI mendearen azkenera arte, atsegiña izan bait zitzaion Gaztelerriko jendeari gure "zatiko" ori. Ta, "zati" XVI mendeaz gero galdu ba'zan ere, or utzi zuan betirako gaztelera, izkuntz indartsu eta munduan arras zabaldu ortara berekin sartu zuan "KO" atzizki euskalduna.

**

SUBPENNA.– Larrukiak "Sub penna" dakar idatzirik: "... in loco que dicent Sub penna": "Aitzaren azpiko esaten dioten lekuan". Baiñan esakizun berorren zentzuak, eta toki-izen orren lenen izkia, "S", era nagusiz idatzirik agertzeak, toki baten izena zitekela adierazten digute. AITZPE, eskierki, losatar aien izkeran: Gaztelera, Sopeña.

A! "Penna"ren bi "NN" oiek, bai beintzat erdiarohan, "N" agoskatzen ziralako, itz ori Peña irakurri bear da.

*** *

PETRA LATA.– Orrelaxe idatzia: "... ad illa Petra lata adsumante ad Baro": "Baro gaiñeko Arri luze artara". Ez da toki-izen berezia. Alatagutziz, esan dezagun, irazean, Araba'ko mendietan ARLUZZEA izeneko erri bat badala. Bai ote zan beste Arluzea bat IX mendeko Losa zar artan?

BA^C.- Bi aldiz agertzen zaigun toki-izena: "... usque semetario illo que vadit ad baro": "Baro-bideko soro artaraiño". Eta "... vadit ad illa petra lata adsumante Baro": "Baro-gaiñeko arri luze artaraiño insten da".

Araba'n bertan BAROJA izeneko erri bat bada. Barolha, ots, Barolla esaten dio Kukulla'ko burni-barren larrukiak 1.025'ean. Kalagurri'ko gotzaiak, XIII mendean, Varoija idatzi zuan, seguruaski Baroxa adierazteko. Eta onela ainzuzen, BAROXA, esaten diote 1.742'an Araba'ko "ordenantza" edo arau zarrek.

Baroje, Ullibarri-Jauregi'n alor baten izana da. Eta berean, Baroste Elburgo'n, Baroga Tobera`ko Billanueba'n eta Baroa ta Baroza Yurre'n, alorren izenak dira; Baroyena, berriz, Unzella'n baserri batena.

Azkeneko izen auek ere arabarrak dira, eta Jerardo Lopez de Gereñu'ri zor dizkiot.

Abizen bezala, berriz, zarra da Baroxa edo Baroja gure Euskalerrian. 1.519, 1.589, 1.625 eta 1.630' ko dokumentuetan agertzen bait da.

Zer ote da BARO?

Baroja'ren sustraiak billatzeko, Mitxelena'k bezala, bi pusketan zatitzen du itz ori -oker nere ustez- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" k. Eta, ortan ari dalarik, anitz gauza pitxi kontatzen dizkigu:

- "De significación difícil de explicar" dala. Ez diot nik ezetzik esango.

- "Se trata de una raíz preindouropea". Jakiña! Naitanaiez preindouropea! Euskalduna bait da!!!

- "Significa límite, extremo, frontera, marca". Erderetako "BAR"ek, baleike, baiñan euskerazko onek ez. Gaiñera Baroja'ren sustraia ez da "bar", "haro" baizik.

- Así, Bardena en un documento de 1.027 se traduce por Extremadura, caso también de la Bardulia occidental vasca". Gaizki dio "se traduce"; "se le llama" esan bear zuan, dokumentu artan ez bait zuan iñork "Bardena"ren etimologia egiteko asmorik. "Se le llama"; eta dokumentu batean; eta bein bakarririk. Eta kitto!

Gaztelaren Sortaldeari Bardulia esan zitzaiola egia da. 883'garren urtearen inguruan Asturietako "III Alfontso'ren Kronika" k eman zion izen ori. "Bardulies qui nunc vocitatur Castella": "Gaur Gaztela esaten zaion Barduli".

Nork asmatu ote zuan izen ori? Erregeak berak? Erregearen izenean kronika idatzi omen zuan Don Sebastian gotzaiak? Gero Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxean liburua birr-idatzi zuan lekaide ezezagunak? Onen birr-idazketa ori bakarrik iritxi bait da gugana.

Entzun Martin Alonso ikerlariari:

"La identificación de Vardulia con Castilla, en opinión del profesor Ramos, es un rasgo desafortunado del rey cronista. Puede atribuirse a una intervención poco feliz del copista de San Millán de la Cogolla" (Dic. Mediev. Esp. Itzaurrea, IX orria).

Arabitarrek ez zuten izen ori ezagutu. Ezta "Gaztela"rik ere. Lurralde arri AL KILE esaten zioten. "Gazteluak". Eta beraien itzegiteko erak adierazi nai dula dirudianez, arabarrak ziran "al kile" aiek babesten zituztenak.

Birr-idazketa egin zuan Kukulla'ko lekaideak bazekian IX mendean Gaztelueta artan euskeraz egiten zala. Orregaitik deitu ote zion Barduli? Bardulia, erromatarrek Gipuzkoari emandako izena da. Gipuzkeraz itzegiten ote zan bá Gaztelueta artan? Ez noski. Naiz Bardulia, Araba'ren sortalde osoa zear, Ibero-raiño iritxi, "Al Kile" aiek zeuden lurra autrigoitarrena bait zan.

Danadala II Alfontso'ren Kronika ez da konfiantza geiegirik merezi duan liburua: "El mismo Alfonso III, a juzgar por ciertos detalles de la tradición, com-

puso en 883, a instigación de Sebastián (au, aldez beste esanik ez ote litzake egiagoa?)..., una concisa crónica de carácter oficial en latín, que deja mucho que desear" (Dic. Hist. Ecl. Esp.).

- "En ocasiones se trata de una contracción de BARAN que es una planta parecida al tomillo". Baleike, baiñan etimologi orrek "Barandiaran"entzat balio ba'du ere, ez dut uste "Baroja"rentzat balio duanik.

- Arma-arrian ikurr-itx bezala "Placidum flumen abundat barbis": "Ibai barea zarboz betea" daraman "BAR" abizena, Ondarroa'ko abizena ornen da; jatorriz Bretañi'koa. Ta zer? Palestina'n "BAR lona" esanez deitu zion Josu'k Ke-pa'ri, Palestina'ko BAR arek Euskalerriko BAROJA'rekin zer ikusirik ez duala? Ezta Bretañi'ko beste BAR orrek ere.

Katuari bost anka billatzen saiatzeak ez oi du ezertarako balio. Katuak lau anka bakarrik bait ditu. Ta noizbait bosgarren bat ere baduala ematen ba'du, bosgarren ori ez da anka izatean, itsatsa baizik.

Zer ote ditugu bá BAROJA eta itz orren enborra dan BARO, Losa'ko errí zar aren izena?

"Baro" "garo"ren aldakuntza dala uste dute Lopez Mendizabal'ek eta Kere-xeta'k. Ez zait gaizki iruditzen, "burdi" "gurdi"ren aldakuntza dan bezala "GA-RO" ere "GARO"ren aldaketa izan bait daiteke.

Ortaz, BAROXA "garadi" izango litzake, "TS"ren otsa adierazteko lumalari zar eta ez ain zarrek nora jo ez zekitela galdurik ibiltzen ziralako, BAKOXA errez izan bait zaiguke BAROTSA. Eta edonork badakian gauza da "TS" eta "TZ" atzizkiak -zarragoa agian "TS" "TZ" baiño- toki eta ugaritasun adieraz-leak dirala.

Mitxelena'k ere BAR + OJA ebakitzen du izen ori, baiñan ortarako 1.025'ko burni-barren larrukiko idazkera artuz: BAR + OLHA, baiñan "Bar" zer izan dai-tekean argitzeko deus egin gabe eta idazkera ortako "LH" oiek "LL" agoskatu bear dirala usmatu ere egin gabe, "OLA"k zer esan nai duan argitzeari ekiten dio, beti bezala errezena joz.

Nik "Baro" + "Tsa" ebaki dut toki-izen ori, bere esan naia "Garadi" dala uste izatera iristeko. Elburu berera iritxiko nintzake, Mitxelena'k bezala "Bar" + "01-ha" ebakita, "olha" ori -Mitxelena'k bezala- "ola" agoskatuko banu. Orduan Barolha "Baro" + "Ola"ren kontrakzio edo laburpena izango bait litzake, eta "OLA" ere -"TSA" eta "TZA" bezala- ugaritasuna adierazten duan atzizkia iza-nik, Barolha GARADI dala gertatuko bait litzake.

Gaurkoz, ordea, "badaiteka" eta "ezdaiteka" ibiltzea beste egun baterako utzita, agur esateko ordua iritxia izango zaigu noski.

Agur bá, eta datorren zenbakira arte.

LATIEGI'TAR BIXENTE



IZAERA^F IZAKERA IZAN EZA IETI KOT^{ia}

Zer edo da izaera --izan-era—? Nola ulertu bea dugu itz onen zentzuna? Iza-tearen egipena edo, izan gertatzea apika. Notin bat jayotzen da ta unealdi artan bertan ba-da, izaeran dago oso-osorik; jayotzean bizian sartzen da ta izaeran ere batera. Baña bizia ez da izaera, ez eta izaera bizia, naiz eta gauza berben lez agertua en. Bizidun bat bizi dan bitartean izaeran dago zalantzik gabe, baña iltzen bada ta o ela bizia ere uzten badu, izaeran ja aitzen dala egizat onartu beat da, gorpua biurtxurik. Ba-dakigu bizia bizidun batentzat noiz amaitzen dan, bere eriotzean; baña izaera noiz amaitzen da? Ora argi ez dagoen asmoa. Iltzean bakoitza nolabait betikotasunean sartzen dala esan dezakegu, naiz eta, jayotzean ere, egitan, ortan sartzen dala bayeztu beat dugun a en.

Beraz iru gauza edo asmo ditugu emen, alka en antzekoak dirala agertzen diranak, alkartasun ertsian ikusi beat ditugunak; baña gauza ber-bera eztrial ere, alkartasun ortan gizadiarentzat baka ik diralako. Beste izakientzat ezin guzti ori azpegi berean begiratu; o engatik, apika, naiz bizia, naiz izaera, naiz betikotasuna, iru izaki-multzoai buruzko asmoa aztertzea egokia edo izango zaigu. Lenengo izakia gizakia dugu noski, biga ena abere ta landareak osotzen dute, ta iruga ena bizi gabeko izakiena da.

Len ikusi dugunez gizakiaren izaera jayotzen danean asten da, enurarik gabe, naiz eta, benetan, ernalduta izan danean bada ere. Bein jayo ezkeru biziduna bada, bizi betean dago ta bizi ortan ba-du bere izaera ere ta betikotasunean sartu da zearo; jayo baño len etzan ezer, edo ia ezer, jayo ta orduxetik ba-da, bizi da, bere izaeran kokatu da, bai ta betikotasunean be. Bakoitzarentzat izaera berea da, berarena baka ik, eta bizia bezela; betikotasuna, ordea, egoteko era bat edo dalako, ez da berea baka ik ororena baño, egitan bera ta guztiak egokera berean, egokera berezi batean sartu dira. Alakotz, bizia ta izaera, izatea bezela begiratu beat ditugu, ta betikotasuna egotea bezela. Ota gizakiarentzat izan eta egon asmoak nola agertzen zaizkigu argi.

Bizia ta izaera, ain alka en antzekoak izana en, eztira gauza bera. Bizia dala-ta, gizakiarentzat joan, eto i, ibili ta egin be adierazten zaigu zeatzez; izkera dala-ta izatearen azpegian ikustekoa da soilik. O elaxe, irurak —bizia, izaera ta betikotasuna— ongi zeda iturik oartu ditezke garbi. Bizia ta izaera bakoitzarentzat noizpait asten dira, betikotasuna ez da bakoitzarekiko asten, eta bere zentzuna noizpait asi dala ezin esan dezakegu; bidezkoa da atela ustea. Ori da asieran buruz ikustekoa duguna. Amayari buruz, ordea, bizia eriotzaz amaitzen da, ez ala ere izaera, ta au amaitu ez baña eraz aldatzen da, lengo biziduna gorpu biurturik. Jakiña, gizakiarentzat bizia bi eratan agertzen da, soñean eta gogoan; ta egiz biziaren amaya soñari baka ik dagokio, ez, iñoiz, gogoari.

Naiz bizia naiz izaera izaki bakoitzean dagoz, berarengan eta bere baitan; nolabait biak gizaki bakoitzarenak dira, bakoitzari dagokion bezela; biak bakoitzarengan eta bakoitzaren baitan dagoz, bakoitzari baka ik dagozkiolarik; eta

bakoitzari buruz ari bagera berdin ari-izan gindezke gizaki guztiai buruz ere. Betikotasuna, ordea, naiz bakoitzarekiko naiz ororekiko berdin da, berbera da, ta bere betetasunean oro bildurik dauka.

Abere ta landareai buruz bizia ta izaera, gauza berbera dala esan edo dezakegu. Jayotzean asten dira bientzat biak, eta eriotzaren egipenean amaitu be berdin egiten zaye. Oyentzat eztago betikotasunik, edo obeto esateko, oyek ez dira iñoiz betikotasunean izango; oyek izanezanetik izanezan arte bizi dira edo izaera dute, eta jayo baño len ezer izan ezpaziran, il ondoren ezer ere ez dira izango. Biziera ta izaera gertatzen dira oyentzat soilik; beraz, ezberdintasun aundia agertzen da gizaki ta oyen artean. Abereak eta landareak be ez dira berdin, lenengoak zentzundunak dira ta biga enak ez; eta oyek ere orela guztiz zeda iturik agertzen zaizkigu ezamezik gabe.

Gauzak ez dira jayotzen ez eta iltzen ere, gizaki, abere ta landareak bezela. Oyetatik asko betidanik dagozela uste dezakegu, edo betidanik ezpada, bai sortuak izan ziranetik bederen. Oyetan eztago bizirik, baño izaera bai, berak, bakoitza bere tokian, baitagoz, eta orela izaera egoteari buruz bakarrik dago-kiela ikus dezakegu.

Gauzak, noski, zentzungabekoak dira ta iru mota auetan ikusi ditzakegu geyenak; senda"-, ubil eta lazpel, eta mota oyen artean sar ezin ditezkenak ere: gogoa, adimena, oldozmena, ezaguera, ...; oroimen eta giza-gogoan dagozen beste almenak; argia, soñua, usain, txasta, ikui; aize, egu, egurazti; yakintza ta ezaguerak; maitasun, zaletasun, go oto, iñartzi ta abar eta abar, ezin o elakoak edo oyen antzekoak diran ainbeste zerki, ..., nun-nai dagozenak aipatu. Ezin esan dezakegu oyetan bizirik dagoela, baño bai-dirala edo ba-dagozela, ta orela guzti guztia izaerari dagoz, bertan nolabait zeda iturik, bizidun eta zentzundun guztiak bezela.

Alakotz, izaerak guzia biltzen du edo guzia izaeran dago, ezinbestean kokaturik. Eta izaera ez da bizia ez eta betikotasuna ere, eta bizia ta betikotasuna izaeran dagoz; orduan bi oyek baño lenagokoa al da izaera?; ezin ori be esan, eta ba-dirudi edozein gauza izaten asten dan unealdian berean, bakoitzarentzat ere izaera agertzen dala. Zer ote da, beraz, izaera?, egokera bat?; zentzundunentzat orixe dala uste diteke, bakoitza jayotzen da ta jayotzean bizian dago orduantxe ta izaeran ere, ora egokera argi ikus ditekela; jayotze, bizi-izate ta 'egote batera izaeran kokaturik bezela agertzen zaizkigula. Zentzungabekoak, ordea, noizdanik dagoz izaeran?, sorturik izan ziranetik edo norbait tek sortu zituenetik; oyentzat sortzea, zentzundunentzat jayotzea dana baita, edo nolabait antzekoa bederen.

Izaera, alakotz, izatearen egokera dala esan dezakegu, len galdetu dugunez, zerki bakoitzarentzat izatean asten dan unealdi berean agertzen dala; ta bakoitzari buruz izan baño lenago iñun ez dagoela. Jakiña izan baño lenagokoa izaneza dala diñogu; baño, egiten, dala esan al dezakegu?, ezer ezpaita; ez dana nola zer dan esan? iñola noski, guztiz eziña dugu ori; orela izaneza gure baitan eratzten dugun asmo bat baño besterik ezta.

Izan al diteke izaera beste asmo bat bakarrik?; orixe esan ezin dezakegula koan gagoz, izaera zerbait ba-dala ukagaitza baita, izateaz azaltzen dana; gauza bera aldira izatea ta izaera?, ez dugu uste gauza berbera dirala, bearbada izaera izatearen egipena dala esan genezake, ta edozein eraz asmo biak orela guztiz alkaturik agertzen zaizkigula ikus ditzakegu, zerki bakoitzarentzat agertzen dala, eiki, izaera lits bateaz; zentzundunentzat ez edo dago litsik eta guzientzat berdin agertzen dala ikusi diteke; baño zentzungabekoentzat ezin

guzientzat orixe bera esan; e.b.: zer da izaera betikotasunaz buruz? Betikotasuna, itzak adierazten duen bezela, betikoa da, ez du izan asieratik eta amairik ere ez du izango; alaz ere betikotasunaren izaeraz mintzatzen gera noiz-naiz, betikotasunak bere izaera ba-duela adierazten; eta betikotasuna betikoa dan ezker o elaz be izan bea bere izaera ere.

Baña izaera ez da, beti, betikoa, batzuetan eta izaki batzuetarako amitzen dalako; e.b.: tximist-inda a igarotzen danean bere izaera ba-duela diñogu, baña bein igaro ezker o bere izaera ere galtzen du. O engatik, apika, izaeran oro ba-dagoela adierazteko, asmoa da ta ez edo da besterik; alakotz, egokera ta izaera batera datoz guzirako, egon eta izan, lits bereziak agertzen, gauza bera baterako dagozkionak.

Orduan, izaera, benetan, izakera bezela ikus diteke, ta o elaz aipatu ditugun egoera ta izaera esan baño egokiago deritzaigu egokera ta izakera esatea; orotarako "era" k asmoa adierazten du, ots, nor-gabe edo zin-gabe dana; ta "kera" k asmo o i dagokion egipena adierazten du ertsiki, ots, bere zeatza. Alakotz, izaera ta egoera goiko galga berean ditugu biak, eta izakera ta egoera beste galga batean, lenengotik sortzen dana.

O engatik edo, izaera aipatzean, beti, goi-goyeneko galgan ari gerala adierazten dugu ezeri atsikita egon gabe, ta atsikitasun ori agertzen danean, nor edo zein edo zer dan bati dagokionean baka ik izakera bezela ikustea egokiago dirudi; "izan", "egon" biurtuta.

Norberaren baitan agertzen da beti izaera, ta norberarengan izakera, asmo biak nola adierazten duten egokiro azaltzean eta onela ere berezi ditzakegu biak alka enetik. Baña asmo bietatik lenengoa da, berezikik, aztertzeo nagusiena.

Noski, ez da efaz notin batentzat bere baitan eta beragan asmoak, lenengo zentzunak batik bat biga enetik at erabiltzea, soilik aztertzea; baña orixe da, ain zuzen, emen egin nai duguna. Beraz, izaera edonori buruz ikustea dugu gure eginkizun bereziarena. Eta goiko zentzun ortan izaera ikustea da gure elburu nagusiena.

Esan dugun guzitik ateratzen danez, zerbaiti atsikita egon gabe, zala edo da izaeraren gogaya argi ikustea, zabaldi guzian dagoen orad dagokionez begiratzean. Eta izaera guziaz dagokie bete-betean, ortan zalantzik ez; baña oro dan guzitik at ikustea nai dugu, izaeraren egia bera dan bezela ulertzeko. Izaera ez da, noski, ikutu diteken ezer, baña ba--dirudi asmo baka a baño geyago dala; ta geyago ori nola atsiki dezakegun ikusi beaf da, ortan zailtasun aundia edo dagoelarik, ezerekin alkartu gabe begiratzean.

Izaera itzaren ondorio bezela izakera dugu, bi asmo auek adierazteko: lenengoa emen aurkeztu duguna bera da, ta biga ena nolabait ondorioa ere dana, izatearen edo egotearen era, bakoitzean izaera nolakoa dan jakin-erazten diguna, izaki bakoitza bere izaeraz nola agertzen zaigun azaltzean.

Guziaren laburpena bezela auxe da esan ditekena: Izaera guziaz dagokiela, bakoitzari era bereziaz noski, baña izan, bizi ta egoten dan guziari, bidezkoa danez. Izaerak, alakotz, orotasuna du bere nolakotasun zeatza, guzia inguratzen eta guziari eustean. Ez da ikusten dan ezer, ez eta guregan sortu diteken edozein burutapenik ere; beraz gugandik at dagoen zerbait, geu be, oro, izaeraren barnean gagozelako. Zer edo da, orduan, benetan, izaera? Onela edo age erazi liteke ongienik, itz labu etan, izaera zer dan adierazteko nayeana: Izaera izate ta egote guziaren egipena da, besterik ez.

U estarazui'tar And ni

EUSKERAREN I¹ ISIA F^tRAK AZALKETA E'YA ADIERAZPENAK

LAR

Gizonak adierazpen batzuk aldakaitzak ditu. Min dunean negarra. Alaitasunean irribarrea.

Adierazpen auek berdin azaltzen dituzte gizon guztiak. Orokorrak dira.

a

Aldiartan, antxiñako gizon aiek landutako izkuntzarik ez zeukatelako, izamenaz jotzen zuten "aots" eta kiñuekin ulertzen ziran. Orokorrak izamenaz jotzen zuten "aots" au ere.

"Aots" au "a" da. "A" aots au alde guztietan sartzen da; eta kiñuaren laguntzarekin gauza guztiak bereiziten ditu. Beraz "a" aotsa izkuntza da. Izadi eta gizonen arteko arremanetatik sortutako izkuntza.

"A" aots au gure izkuntzaren oiñarri dalarik, berau Euzkara da.

Izkuntza onek, bere azikera ere, izadi eta gizonen arteko arremanetan du sustartua.

Izkuntzaren azikera onetan, gauzaren berezitasuna artzen danean, "a" sustarra maiz baztertzen da.

Euskera, asan degunez, izadi eta gizonaren arteko arremanetatik sortutako izkuntza dalarik, euskera beraren sustarrak, izadiaren adierazpenak agertuko dizkigu. Izadiaren adierazpen auek berriz, euskeraren gaurko zenbait itzek izan ditun soilketa eta aldaketa zelatatuko.

Izadiaren adierazpenak zelatari ditugula, euskeraren sustar batzuk azaltzen joango gera.

Ikusi degu "a" dala euskeraren lenen sustarra eta oiñarri. Ondoren, ardien ibilketak ikusiaz, auek sortzen diguten sustarraren azalketa egingo degu.

Artaldeak, jarrean asten dan tokitik, larratuz alde egiten du. Ibilketa onek "al" egite onek sortzen dun sustarra, begi eta irudimenaren bidez sartzen zaigu. "Al" sustarretan, "a" ezaguna degu. Aldi, toki, gauza eta bizikoizate guztietan sartzen da. Adierazpen onetan, "a" k tokia adierazten digu. Eta "l" ek, toki onetatik al edo alde egiten du. Beraz "l" sustarrak zuzenbidea adierazten digu.

"L", gaiaren atzetik azaltzen zaigunean, onengandik aldezduz dijoa; eta gaiaren aurretik azaltzen zaigunean, onengana zuzentzen da.

r

Bizikoizatea, janik jabetzen da aro jaki edo gauzataz. Auek eusten bait dio-

te bere biziari. Jakia aoraturik, au txikitzerakoan ateratzen dan karrazkatik "r" jasotzen digute belarriak. Orregatik "r" degu emen, aipatu degun egintzak adierazten digun jabetasunaren sustarra.

Aburu au sendotzen digun itza "ar" degu.

"A" sustarratzaz, onek adieraziten dunatzaz "r" jabetzen da. Ala diogu, "ar" ezazu, esaten deguean. "A" edo gauzatzaz jabetzen da bat.

a I r

Iru sustar auek agerturik, ikasketa onen izena aztertuko degu.

I a r

Izen onen lenengo sustarra "I" degu. "L" sustar onek zer adierazten digun azaldua dago; bera, zuzenbidea da. Eta "a" sustarraren aurretik azaltzen dalako, onengana zuzentzen da, "r" sustarraren laguntzarekin beratzaz jabetzeko.

Darabilgun lar onetan "a" izkuntza izanik, izen onen adierazpena, izkuntzara zuzentzea da, beratzaz jabetzeko.

Ondorengo tarte onetan azalketa batzuk egitera goaz.

(a) Euskeraren sustarrak arkitzeko, gaurkoegunean darabilzkigun ainbeste itz berri utzirik, aintxiñako gizon aiek beren inguruko gauzak adierazteko erabiltzen zituzten itzak azertu bear ditugula.

Gaur, esan genezake, sustarren jatorrizko adierazpen bereziak aazturik, adierazpen auek azaletik jasotzen ditugula.

(b) Itzak, batzutan, izki berdin batzuk eraman dezakete, naiz izki auek sustar ezberdiñekoak, adierazpen ezberdiñekoak izan.

Izki berdiñak azaltzen dizkiguten adierazpen ezberdiñak, izadiaren adierazpenak motatuko dizkigu.

Aurrerago ikusiko ditugu adibide batzuk.

tan tan n

Eurieraso baten ondoren, zuaitzen arteko otstoen artean eta nunnai itukiñak sortzen dira.

Itukiñetako ur onek, uretara erortzerakoan, tan tan otsa jotzen du. Baita memento onetan uraldearekin bat egin ere.

Belarritik sartzen zaigun tan tan otsagatik, izkuntzaren sustar bat degu.

Eta uraldearekin bat egiten dun bezela, sustar onek edo bere atzizkiak, beste izen batera aldatzen ba dira, izen orri, izateak bereganatzen dizkiote,

Adibidez: Erbi-tan, mendi-n, itxaso-n.

u

Eurierasoak, itukiñak sortu eta bazterrak ase ondoren, errekek azi zituan. Auen urzaltoak otsa aunditu zutelarik, oiartzuna zabaldu zan.

Iturburu oneri jarraituz azaldu dezagun, ibaiertzean bizi geranok ixiltasun audienean oaratu ondoren, u u u ... ots batekatik sarri esnatu izan gerala. Baita gurekiko zera esan ere: Ez degu badaezpadako uraldea.

Adierazpen onek argi azaltzen digu uraldea "u" otsaren jabe dala.

"U" sustar oneri, jabetasuna adierazten digun "r" sustarra loturik, "ur" ematen digu. Au da: "U" otsaren jabe.

me e

"U" otsak, ez digu ots zakar, zaratatsu bat adierazten; ots azantza eztitu bat baizik. Aotsa adierazteko erabilli izaten bait da. Eta ondoren ikusiko degunez, arkumearen marruza adierazteko ere.

"U" edo marruza mee jotzen dun ardi jaio berriari deitzen diogu arkume. Au da: "Ardik "u" "me". Izen oneri "di" laburtzen zaiola, esandako arkume izena gelditzen zaigu.

Arkumearen marruzatik "me" artzen degu sustartzat. Eta onen "e" atzekia, leun, bare, samur eta abar adierazteko.

o

Zenbait sukaldeetako baztarretan, amak umeari aotstu izan dion o o o..., entzun izan diegu. "O" izamen aots au ere orokarra degu. Ba ditu onek gure izkuntzan ainbat adierazpen.

Esna eta negarti jarraitzen dun umeari, "o" onetarako agindua, zuzenbidea eman izan zaio, eta ematen zaio, "lo" egin ezazu, "lo", esanaz.

Gaurregun "I" eta "o" sustarrak, loturik erabiltzen dira, "lo" a adierazteko.

Lo dagonak ez du ezeren eginkizunik. Au geldi dago. Eta geldi dagola adierazteko, "o" loaren sustar nagusia, maiz erabiltzen da.

Itzaiak ere, uztarturiko idiei geldierazitzeko, "o" aotsa erabiltzen dute.

"Lo" tu itza ere erabiltzen degu, bizikoizate ala gauzei geldi eusteko.

dizdiz iz

Eguzkia indartsu azaltzen zaigunean, eta begietan aurrez aurre jo, ez degu berari begira irauterik; begietako malkoak ixuri erazitzen dizkigula, alakoxe dizdiz zentzukizun bat sortzen digu ta.

Bere berotasun, bere argitasunaren indarra itzaltzen dijoakiola, "iz".

Ez ala ur ibilkorran zear jotzen dunean. Emen, "dizdiz".

Zenbait gauza argitsuak, "iz".

Izadi eta gizonaren arteko arremantetan, argitasunak sortzen dizkigun sustarrak ditugu auek.

Itsasoko ur-zabala esateko ere balio da iz orrek.

otz otz

Euskeraren sustarra arkitu naiak, maiz daramakigu izadira. Neguko zenbait egunsentietan, nere bizitokiaren atzeko leiora eraman nau ni.

Izotz gogor bat egin ondoren, etxearen atzeko leiostik belardia ain zuri eta dizdiratsu ikusi izan degu!

Izotz izenak "iz" itza argi azaltzen digu. "Iz" edo "dizdira" adierazten digun sustarra degu. Eta "otz" itza, ondoren ikusiko degunez, belarriaren bidez jasotako sustarra. Onek adierazpen bi ditu.

Izotzak "otz" adierazpena nungo sorburutik jaso al izan dun jakitearren, belardiko izotza oiñazpian sakatzen ibillia naiz. Baiñan izotztutako belardiko gogortasun onek, ezer gutxi adierazi izan dit.

Eta orra bide oni jarraituz, baso eta mendietako bideetan zear arkitzen diran oiñazetan eta osiñetan ur-izotztua arkitu. Izotz au oiñazpian arturik, onek, autsitzerakoan "otz" sortzen du. Oiartzun ta guzi sortu ere lokatzarteko zuloetan.

Au degu adierazpenetako bat. Belarriaren bidez jasotako "otz" a.

"Otz" onen sorburua, naiz zentzukizun batzuk sortzeko gai izan, ez dago ez begiekin ikusterik, ez belarriekin entzuterik.

Sorburu onek, izotzari sortu eraziten dion "otz" agatik artzen du bere izena.

Bigarren adierazpena degu au.

Otzikaraz jarri gaitezken "otz" arena.

tzi

Basoko zuaitzen artean otsik atera gabe ibiltzea ez da errez. Autsitako zuaitzadarrok lurra estaltzen dute ta.

Igarturiko zots au oiñazpian arturik, emen izaten da "tzi" otsa!

"Tzi" ots onetan belarriak jasotzen dun ots nagusia "i" da. Au erabiltzen da, egurra autsi ondoren, erdibitan gelditzen dala adierazteko.

Gauzak autsitzerakoan, zatiz ugaritu egiten dira.

tza

Udazkenean zuaitzak otstoz soiltzen dijoazela, nunnai arkitu dezakegu orbela. Ibilli bear degun bideetan pillatzen ba zaigu eta gure oiñazpiok erasan, ematen zaion zapalketa azaltzen du, "tza tza" joaz.

Iz au orbelari ezartzen diogula, orbeltza esaten digute.

"I" eta "tza" berauek dira ugaritasuna adierazteko erabiltzen ditugun sustarrak.

"Di" eta "ti", maiz, ots-eztiz erabiltzen dira.

z

Aizeak, ikusten ez degularik, iñoiz zakarki asko jo izan gaitu. Onen bultzada askotan nabaitu izan degu nai genuen baiño gogorrago.

Eta ikusi ezifinezkoa ba zaigu ere, bere "z..." otsa belarriak garbi jasotzen du.

Au degu zirkintasunaren sustarra.

Zirkintasunaren "z" sustar bi lotu ezker, "bizi", ematen digute. Bizikoizateak dun bizia edo zirkintasuna bat. Zabaleko ibillia bestea. Au da: Bizia.

uts uts

Utsaren sustarra izadian arkitzea eziñezkoa dirudi. Utsak ezereza adierazten digu ta. Baiñan gauza arrigarria ba dirudi ere, gizonak berezko egikeraz, izadian aize gabeko utsunea sortzen du. Utsune onetarako bidea aizeari zabaltzen zaionean, "huts" otsa jotzen du. Onen azalpena, jakingarri dalakoan, ondoren emango dizuegu:

Oiñak lokatzatan orkatillatarañ sartzten ba zaizkigu, auek lokatzatik aterazterakoan tokia sortzen dijoaz; eta aizeari bide ematen zaionean, aipatu degun huts otsa sortzen dute.

Ori dala ta, huts orrek, aizea sartzten dan mementoa adierazten digu. Sustar oneri jarraituz, lokatzatan gelditzen dan zuloari, tokiari uts.

Egindako azterketan, au artzen degu sendotzat.

atz

Soiñaren azalean naieza edo atzkura sortzen ba zaigu, atzka egin izan oi degu.

Atzka azalean jarduteko, ba ditugu tresna berezi batzuk. Auek atzkazalak ditugu.

Belarriak jasotzen digun sustarra degu, atz sustar au ere.

Sustar onek ematen digun ondorengo itz bat, "atzean" degu. Nunbait atzkura sortzen berezia degu atzea.

eg

Eg sustar au noiznai eta nunnai entzun oi izan degu. Guk entzundakoetatik, adibidez, bizpairu gertaera azalduko ditugu.

Udazken oietako batean bas-usoen zai zeuden eiztariok ta jardunean geundela, eg eg eg... ots batek, bizkor burua jaso erain zigun. Ez gendun gainkaldean badaezpadako basouso multzoa.

Beste batean, egun bero oietako batean, Urbiako zelaietan geunden gu. Zuaitzpe eta aitzen artean abegiturik, artaldeak. Luzezabalera guztian, ixiltasuna. Eta orra ustegabeko memento baten ixiltasuna urratu. Alako eg otsarekin gainkaldera zer ote zetorkidan bizi jaso nuan burua. Berealdiko zapelaitza bertan nuan, txori ondoren gainbera sartu zalarik.

Menditontorrean ere egaberaren eg eg otsa noiznai entzun izan degu.

Sustar onek ondorengo itz asko ditu. Onen kimuak oso zabaldurik daude.

be

Artaldean etengabe entzuten dan bee marruzak ardien izena ez sustartzea, azterketaren asieran gutxiasko arritu nintzan. Baiñan, marruza onengandik kimurik zuzenki artzen ez ba du ere, zearbidez jasotzen du.

Ardiaren lar dala adierazteko, ez degu ardilar esaten; belar, baizik.

"Be" lar onek beste adierazpen bat ba du; lurrean arkitzen dalako, "be".

Ardi izenaren sustarrok aurrerago ikusiko ditugu.

pizt plazt

Urez azeazeturik gelditzen diran bideetan lokatza sendotxo izaten da. Auetan lokaztu gabe ibiltzea ez da errez. Giro onetan bazterrak zipriztinduaz dabil-tzan oñak sortzen digute pizt, plazt otsa.

Urtearen zear sortzen diran lokatzartean dabil-tzan aberei deitzen diegu pizti.

itz

"Aitz" izenak bi sustar daramazki: "a" eta "itz".

"A" sustarraren esan naia maiz aipatu degu. Aldi onetan, "a" gauza bezela azaltzen zaigu. "Itz" sustarra berriz, "a" edo gauzaren "berezitasun bat" bezala.

"A edo gauza" zorrotz onek, ebaki bat egiterakoan "itz" sentzuketun bat sortu lezaiguke.

Edo tresna au zenbait lanetan darabilgula, "itz" ots bat sortu.

kolok kiok

Klok edo kolok ots onek sorburu bi ba ditu gutxienez:

Lurrean tinkatu gabeko arrimutur bat astintzen ba degu, berdin da ezol bat izanik ere, kolok edo kiok joko digu.

Bigarren sorburua, txitak ateratzeko gertu dagon olloa degu. Onek kolok edo kiok otsa oso nabarmen jotzen du. Emendik, laburpen txiki baten ondoren, oneri oilloloka deitzea.

dar dar

Aize zakar batek zuaitz zarraren adarrak astintzen ditunean, auek alkarren arteko bultzadan "dar dar" sortzen digute. Dardarka jartzen dira.

Emendik, "a" k gauza adierazten digula eta "dar" k "a" ren berezitasuna, "adar", atera dezakegu.

pol pol

Nik entzunik detanez, urak, belardian barrenetik gora egindako bidetik irte-tzerakoan, "polpol" jotzen ornen zuan. Au degu ba, Polpol iturriaren sustarra. Ez degu sustar onen kimurik ezagutzen.

txist

Gizaseme ez ezaguna ernarazitzearren, maiz entzun izan degu aoz jotako txist txist otsa.

Onek ba du ondorengo itza: Txistu.

SEGUROLA'TAR J.
(LAR liburutik)



ERRI-EUZKERAREN AZTERKETA

- KASETAN ARTU DANAREN IDAZKETA
- OARRAK
- ESALDIEN AZTERKETA

*Mendizabal'dar Vitoriana (Bittori) andrearekin egindako elkar-izketa.
Gaztelu'n jayoa degu, orain 75 urte. Orain Tolosa'n bizi da.*

- Ñun jayoa zera?
 - Gaztelu'ko baserri txiki baten. Ñere madrina, nere izena, ni jayo nitzen... beno nere ama esperontzeola nola eskatu zion etxeko andreak berak jaso niñun; erentzie omentzen, baño etzan azaldu, neetzako len bezala berriz'e! Ta gero beintzat ola izan giñen; bazkaria're, eskola joaten nitzanean, beak ematen zian ta ni oso ondo zeatzen zian, baño iltzen derrepente ta akabo!
 - Besteak etzuten ezer jakin nai...
 - Iñork etzun ezer jakin nai. Ta beai tokatzen zitzaionak balia oain etxekoandre ta nausi... ezertxore tokatzen etzitiela...
 - Bai, e?
 - Ala esateue beintzat, bere aldetik etzaukela ezer, beste aldea omentzan dirue.
 - Baño derrepente il da, akabo beti...
 - Bai, baño ala ere tokatze emen zan beste aldea, semen aldea; beste aldea tokatzen zan dirua ornen zen tokatzen zanekua, zeetu, ala esateue, ezta kit... nik oik ezautu'itut eta.
- Bueno, giñen ba lau anai-arreba lendabiziko amamak ta gero giñen bi anai ta lau aizpa, bat "inclusa" kua genun; anai propioa gerran iltzan, Teruel'en, an-txe...
- Gaztelu'koa da eta Gaztelu'n tokatzen zaidan Elizea joaten giñan igandetan, baño gero Komunjoa in ber zanean da, Gaztelu'a. Gero ba Komunioa amar urteako, Komunio aundie in nun ta gero seitun neskame. Zaldibi'ra bialdu niñuen, zea ta, osaba ta...
- Ñora?
 - Zaldibi'ra, ume-za; ta an urte bete in nun.
- Zenbat urtekin esan dezu ori?

— Amar urtekin Komunioa ein nun ta andik bi iru illabetea jun aitzen neskame, ume zaitzea.

— Zenbat anai-arreba esan dezu ziñatela?

— Gu, esan dizut ba, bi anai lendabiziko amanak, anai arrebak ta gero giñen lau aizpa ta bi anai, bat "inclusa"koa; propioa bat, ua gerran il tzaidan, Tueruel'n, ua iltzan. Gero lau aizpa ta zea gelditu giñan. Ta gero ba ni, esan dizut, etxen, Jesús! Komunioa, zan garaian, ein nun ta jun nitzen neskame ta andik Zaldibi'ra etorri nitzen ta anayak ortxe... ta zean dan... Jesús! nik, ezta nik esatea baño nik segan ta, Jesús!, ni bixkorra nitzen nere urtetako, izatez ta anayak estimatua eukitzen eizundun, baño eontzaite ba... ari beira! Ardi batzuk ba zituen eta lanen etzun ezer ikasi gure anayak, basarrin; bere ardiaekin... Eta atte ere bai... eta gu an... ze, goseak akatzen... Etxeto'n zenbat lan, zenbat labore labore ingo zan toki txiki ortan ainbeste jende... ta antxe mixeri franko ikusiz. Ta gero esan deana, gure aizpa txikia ba, neskame juntzan. Zarrena're neskame ibiltzen zan, oain Donosti'n daon oi, eta ni an, antxe lan da lan. Gero ba nik esan nun: "Ola ezta ba posible! Ni ere neskame atea bear det. Ta "Ez juteko neskame, ez juteko". Jornala emango berrogei duro, emango diela, jarriko dñala ta ez juteko". Ba orduan nere anayak nerekin zun defenza guzia, bea oso ondo ibiltze zan, nai zun bezela ta, berrogei duro aindu bai baño berrogei duro neetzat ez. Bueno, ola ezta posible ta... Erriko neska bat etorri zitzaidan, neskame zeon lekun, bea ezkonduko zala ta aren tokirako jun nitzan. Aaa, neskame, ta gustora gañea! Jun nitzen ba ta gustoa ene! Ta nere aitan, gure etxean antxe ibilliko die ba lanen da... Gure anaya, esan deana, etzakin lanean bate ta ekarri zun andrea bate lanen etzekina.

—Ederra ba baserrirako e?

—Eta batere ez! etzekin ezer, ezertxore; ezertan etzekin!

—Orduan neskame joan ziñala... andik aurrera?

—Eta esan deana, andreak ezintzun bizimoduik atea; goizean beatzi t'ardi, amarrak ua jaikitzerako, ezerren pulamenturik ez. Nere aitte Aitte-gurea zerbait esaten asi zan garaian, andrek alde eintzion.

—Alde intzun e?

—Bai, nere koñatak alde intzun, bai, gizon arekin "claro" ezintzun ezer ein da, ezer ezintzun in. Seme bat zeuken ordun, ordun seme txiki bat zeuken bi urte, bi urtekoa edo ola. Dana dala beñepein, Itsasondo'a juntzien; antzeukan aizpak ta area jun ta arraben asi zan gizona. Ta area juntzien ta etxian zien beirik obenak aitai kendu zizkion, etxean lan etzula ta... eta bei haar bi ta bi txekorrakin aitta ta ama nearrez utzi; aizpa gaztenak amar urte zeuzken, eta dena, labore guziak, garik eta orduntxe bete betian dena utzi ta ospa! Claro, aitta berriz nearrez neegana. Zein ber nun nik? Gurasok ezin ba utzi! Gutxiena pentsatzen nuna, basarrin berriz lan in bear nunik e!

—Zenbat urte zenitun?

—Ogei urte. Nik gutxiena pentsatzen nun berriz baserrian lan ingo nunik! Baño gurasoak biazu, gurasoak die eta ni gurasoak jasotzeatik etorri nitzen. Jesús! Bateko errenta paatzeko zeuzkenak, bi urtetakok... beste eztakit zer zor zeuzkena... beste eztakit zer... danak utzi ta dana... ospa inda juntzien e! Nere anaia juntzanen aita eta ama antxe utzita... Nik nere komerik ikusita auzkat! Alaxen gero aizpa, uste Donosti'n zeon, au Frantzi'n izaten dan oi'ta ura e an etzeola oso kontentu're ta biok etorri'iñen baserria, bale! Makiñat astarrika

ein genun baserrin, Jesús! Pentsatzen jarrita're, iñork eztu siñistatuko zer tenore izan dittuun! Baña altxa ta in aurea! Geuzkan txanponakin bi txerri eosi, bat gizontzeko, bestea umetako jarri... bizimodua etxeako, txekorrakin arreaka asi; beyek e moldatu antxe!

—Ezkondu ziñanian...?

—Gero. Gero baa.... ----- Baño segi... danak baserriko lan guztiak, danak, lan guzie e? Bakizu... zuk eztaizu ze lan dan baserriko... baño gizonak eindako lan, dan dan den dena, dana... Antxe seitu nun zazpi urten; gero aittek bixta txarra zeuken sega pikatzeko ta ezintzun in; erritan guri; eun baten naska naska inda alde in nun da asi nitzen pikatzen... akabo! andik aurrrera neonek sega pikatzen nun.

- Gurasoak eta zu bakarrik ziñaten?

—Iru aizpa; zarrena beti neskame ibiltzen izan da.

—Iru aizpa, gu biok, bi aizpa, beti laneako ----- Ama etzan beñere gauza izaten semea gerran il zitzaionetio, geyo ezan gauza izan laneako; dizgustoakin edo, biotz zaña eten o eintzizaion... seme arekin! ----- Aitte're... ardoa izan ezkerko gizon txarra gendun, gizonik ez! Etzun baserrirako bate maiteik eta urten, urten merkatua iten zen...

—Eta bera etzan baserriko semea?

—Bai baño, juntzan egun baten, zea, erria; ordun "ermandadeak" ganaduk zeatzen zuen da, an ganadua saltzen da... etzian uzten merkaturik eiten, bakarrik ----- Total etortzen zan... etorrera txarra zun beti ta arri jo, kanpon iltzen gure aita.

— Nun?

—Kanpon

— Kanpoan il al zan?

—Bai, kanalean aurrean iltzan, orra. Trumoya gaueako, oyea juateako iñolako gau giro txarra zen ta gure amak... jo! Gu gazteak eta errexao, lotara jun ta aztu itte genun da goizeako jun zitzaigun: "Aitta ezta azaldu ta billa jun bear-ko'zu aitten billa ta ba giñuazten korrika. Tabernako neska zetorren. "Beala juteko" Ya jasoa zeuken baño tabernako aurren, ikaragarritzko gau giro txarra ta.

—Ama gaxua e?

—Apaiza eaman gendun ta eamantzuten da apaizak: "Seittun, seittun, seittun, seittun eaman etxea, etxea eaman bizik baleo bezela, beñepein. Geo ---- ----- Ala ekarri genun etxea. ----- Ta andik bi urtea ama iltzan gaxua, berriz bakarrik utzi... Olakoxe istoriok die guiek, zea, komei earrak ba ikusi... Jesús! Gero ola-ala in gendun ta esan deana, bakar bakarrik gelditu giñan berriz'e. Amak goizian beak deitu zian jeikitzeke nei ta... Gu ukulluko lañak eiten, ta beste aizpa: "Ama zean daola ta:..." jun nitzen da: "Ba, ni ointxe ilko naiz, ointxe, baka bakarrik geldituko zeate" Korrika apai-zengana jun da ----- "estremauzua" edo, "primer viernes" zan ta ordun Komunioa ume txiki juten zan ta... ume guztik juten giñan da aien Komunio ondon etorriko zala ta Komunioa bukatu baño lenago iltzan. Ala juntzan ura ere, gajoa! Amaika sufritu zun arek eta...! Olako semeak eta olako gizona zitun arek eta... Etxeti atea ezkeo iltzen etxeako --- arraztoik ez andreik, ez amaik, ez umeik...

- Kalera jua ta...
- Dena kanpua ibiltzen gure atte... Ta etzeon esan bearrik, ikustentzan etzala - - - - . Etxeti atea ezkeo ta aroa... arek etzean gizonik. Komerik Jesús! Amaika neargarri ta mixeri ikusitako kristauak... eztao esaterik! Eztao esateik e!

- Zenbat urte zenitun?

- Nik e, 26 urte. Iru aizpa geuden...

- Bestea txikia oraindik?

- Au, Berazubi'n daona. Ni baño amar urte gaztiago da ori. Geo ba, ni zea batekin ibiltzen nintzan da... ta batzuk etxean, etzuen nai neekin ezkontzeik; mutilla etzuela etxen nai. Etxekoak berriz, alkarren sesion, ta bueno azkenian beintzat ezkondu giñan da. Gero, ordun, ezkondu giñenen ba, aizpa neskame atea zan, Amasa'ra juntzan.

- Zuek basarrira ezkondu al ziñaten?

- Bai; pentsatu al genun ba, gaur bezela, kalean ondo biziko zanik! da... Ez orrelakorik! Olaxe, antxe ibili giñan berriz'e, arrastaka...

- Zure senarra ere baserritarra zan.

- Bai, bueno bea're... arrobin lana iten zun.

- A, arrobian!

- Ba alaxe ta gero arrobotik gelditu ta esne pixkatekin da, martxa artu gendun... Geo asi zan bea're traton da zean ta bai, ua're... ua jutentzan tratua ta - - - - - bueno ni antxe nere ume - - - - - Baño gure gizona etzan panderoa ta.... Traton. Tratua gustatzen zitzayon.

Ta ori ondo atera ezkeru ederki...

- Beti ezta atetzen! Baño bai, bueno, obeto bizi nitzan ni beñepein. Beste itzal bat edo... beste martxa bat edo... beste... ze esango 'izut ba!

- Bai, beste gauza bat.

- Bai, beste modu bat. Ola're lan inda e? Ni Ulia aittukozu? Ez naiz allatu uaindik, au ala esan bear da. Ara junda-nao ni idikin ta aek 'e, soziok, beste bee jayotetxeko anayakin da, garoa beak moztutzuen soziok - - - - - ta aek juten zian aste guziko ta. Abitu bazkarikin, idikin ta zea, bi ordu bai, geyo, gi orduko beintzat bai, idikin pasako nitun. Aik, gurdik kargatu, gurdi aekin andik etxea etorrita nao ni e!

- Gizonak bezelaxe lan eginda e?

- Berdin, nik ezta nola bizi naizen'e; baño oain asko atetzen naiz, persona gutxiokin ta zea gutxigokin makiñabat iltzen die e!

- Askoz gutxio egin dutenak...

- Nere bizimodua dena ola izan da. Bueno ba, tira! bastante polliki gero ba... Gerran ibilli za ba nere gizona.

- Bai, nik baittut olako zera... - - - - - edo zera dela, azkenen dena saldu in zun... zuloa! Lenengo zeakin orko begia zea zun... etzan ezautzen e! Ola... beitu ezen, baño... ta ola jarri zioben zea, iru pesta euneko ta gero "meritua" o medallana beste bi erreal; "tres cincuenta" jornala; ba, ura ere, laneako gauza zan ta kendu intzioben geo, kendu intzioben. Erriko trasten batzuek izango zien e! Seguru asko! Bai kendu in zioben. Ta ordun esantzioben... nere aizpa Atzabi'n zeon; ba, Atzabi'ko nausi zanak, izuarrizko tratamantua, tratua zun nere gizonakin. Arek bear zitunen da... bear

zitun... idik beak ekartzen zizkion, an e, basarri zuen - - - - - ta - - - - - or-
dun esantzinan - - - - - ika eiten zion nere aizpai, bai, ika eta esna ornen-
tzion ba: "Ori, or kendu in dioela?" nausik esan omentzion: "Ari lana tokatzen
zayo" Berriz eskatu bear like" esan omentzion. "Ganaua zeetu eta an etxe txar
artan, dauken familikin da arek noako atera dauke aik" esan omentzion "gaur
edo biarko". "Aei lana tokatzen zaion ta eskatu zala; beartua zion" Ta nere aiz-
pa orrek e, da juntzan lan eske bi tokita eta esan ornen zion: "Len ere ortatik
obeto daukeala, baño zea... "abogadu" nun bialdu zun keja nausi orrek; jun-
tzan...juntzien nere aizpa ta biekan esan dizke ta karta intzian arek, esan ornen-
tzion: "Karta au emoizu. Beak nai zun Txaama'n sartu, zeatio, oain dabilkigun
Etxeto ortik gartu nola bai daukeun, oaindik umeak, oaindik ez geneuzkela ba
laneako modun, ondik txikitxkok're bai ta urtean, zea pixkat eñez ta idea one-
kin Txaama'n nai zun. Txaama gendukan zea ori etzeon bueltik. Urrengo zean
eman du karta oi, andik urrengo zea, iru egunea eo... lanea juteko intzioen
zea, ta bi urte geion ibilli zan. Gaztelu'tik Txarama, lanen e! Gero ba Txarama
orta jetxi giñan ta poliki zeatu giñan - - - - - or Etxeto'n ibiliko
zea, ba, txikiñak amalau urte in arte - - - - - Baño gaizki atera zi-
tzaigun, andik bi urte t'erdia eo iru baño leen ua ere iltzan bea ta akabo ber-
riz'e... berriz ibili, al! an, berriz bakar-bakarrik. Bakarrik. Bakar-bakarrik! zea...
ez zeruako ez lurreako.

— Zenbat urte zitun zarrenak aita il zanean?

—Amazazpi ez, zea, Lontxo're asia zeon lanen; bai, oain baño errexago
asitze zan orduan; asia zeon; bik lantoki batean itentzuen lan. Orra, gaitzerdi,
pixka bat. Bai asia zeon da... aber berriz'e ni Etxeto'a, amabi urten e! amabi
urten! - - - - - emendik auntza oñez, korri ara ta korri onea; amabi ur-
te pasatu nittun, uain beintzat danak aztu; Etxeto'i e eutsi nion, oain gure
"señorito" oi gustoa dao ta an dabil oain. Ari eutsi in nion nik azkenen. Nere
aitan etxei eutsi in nion nik; oain bea, bea beintzat ain gustoa, "kapritxoso"
dao.

—Orduan, zure semeak azi ta andik aurrera?

—Bai azi... bai zarra soldau juntzan, andik etorri zan. Ogeitabost urtekin ua
ezkondu intzan; ogeitabost urtekin ezkondu zan ua. Orain arek ateata dauka
familia. Da gero bestea, bestea're ba, ogeitazortzia segitu zun arek; arek asko
lagundu zian. Nai dunak nai duna esango'u, baño gure Lontxo amantzako ----
----- ba izan da e!

—Beti esaten dezu ori e?

—Ta esango'et; nik ezin dezaket ukatu oi; arek izan du gurasoa bezela artu
zun arek bee zea. Aitta ilda... umea zan baño... nik oi eztet esango... eztau-
kat esateik gañea. Arek bee jornala beti eskua ta ordun zeaik etzun nai izaten
amak eskun artzea, ala izan da ua'e. Arek izango ditu bee zeak baña nei al-
per alperrik esango die... Ua izan da amantzat, nik eztet esango danak txar-
rrak dianik, baño ue izan da alakoa. Ua mutil serioa izan da ue familiako. Ala
beintzat, ua ezkondu zan da, ta ua'e zazpi bat illabete etxean eontzan, an-
drea gaixki xamar eo, ta belauna atea zun. Aizu beajetik etorri ta giñoaz ten
geo Tolosa beajetik, aurreko egun baten etorrita ta Tolosa'ra ba giñoazten dá
autobuseko parada goazela, irrixtatu zan ondarretan ta rast! belauna aterata
gelditu zan. Bost bat illabeten, noski beintzat, gure etxean on zan. Aitta il zi-
tzaion ta berriz'e ni semeekin gelditu nintzen. Ok'e berriz'e Jesús! ta... e...

Parrandero earrak izan dia bi gazteok e? Ua ementxe baleo esango nioke ta; oik trasto xamarrak izan dia bere artan. Oain kanbiatu da, baña Jesús! kanbiatu da, baña oaindik itte'itu... Bai, baña oikin beñepein pasientzi aundia eman bear izan da. Baña tia! oi ezkondu zan beintzat eta! Uain alare on eitteigu ta ze esan biar eztaukat onekin, bestea're berriz Jesús! ttiriki ttarraka ibillia baño ----- "asi ke" tira! Uaxe deskantsua! Nei aek emantzian deskantsue! Jesús! ----- Eztezu siñis-tatuko! ----- Ola gabiltzen da geo obra in bear da len e? Sekulako obra in genun Txarama'n, ta ----- berriz'e sintasola, baña sintasola're, sukaldeko ain puska ortan e? Orduntxe neonek esan nion: berriz emen obra itten? -esan nion, len ainbeste diru gastatu deu ta uain berriz'e etxe txar ontan obra in bear deu? Ta au'e, onek'e, gustoa aittu zun e, onek bai aittu zula ua gustoa au esan bearkot, au, egia esanda an, txikia ta etzala gurea; lene arek ia milloia gastatu zun obra aik guzik itten. Da ze jarrera zeon ba an; ta berriz obra ittea? Nei zea ematentzian ainbeste obra in genun etxe artan, len ola zan, kumuna sartu ez, leyoik ez, bentilazioik ez, ezerre; zea, aurreaka sartu eo atzeaka sartu eta aurreaka ateatzekq komun zea bat, besteik ezerre; pasillu txiki bat... geo "sikia" pixkat au juteako txukundua zeon pixkat, jarri zuen orduako...

- Bai?

- Ba beintzat, ta bea ola, orreatik're, au asi zan belaxe tiriki ttarraka, billatu zun etxea ta etorri giñan. Da Jesús! oaintxe ez nitzake jungo... Ezta dirua emanda're. Tolosa oneaxe etorri giñen. Santa Clara; Jesús! ni izugarri pozik etorri nitzan eta eztaukat damurik. Au beste gauz bat da, ona. Lau laun, noa atetzentzean, ze itte dezun, noiz etorriko zean zai, ez besteik. Pelukeria joateko're askotan beldurrez o; panaderona ateata're ----- emen eztu iñork eze iten. Naezunen ateatzen zea, naezunen etortzen zea, iñork eztiztu esaten. Igualko lasatasuna deuken, Jesús Maria! Ni oain beñepein zartu in naiz, oixe daukat, baño gañontzen, au eztao gelditzeik, baño kejaik eztaukat. Azkeneko urteetan ba lasai; geo neoni're ez naiz ola, atetzeko oitukoa. Ba naiz, neoni're ala naiz e! Ni neoni're ibiltzea gustatzen zaiten oitakoa naiz. Gure aizpak bate eztu balio, Berazubi'ko orrek, iñoa ateatzeko; nik berriz eoteko ez tet balio; nei ateratzea gustatzen zait.

- Nora joango zera?

- Bai, Martxoa'n jungo naiz, Ibiza'ra.

- Leno nun ibillia zera?

- Valentzi'n izan naiz, Castellon'en izan naiz, Galizi'n izan naiz; bi aldiz Malaga'n izan naiz. Noa jungo naiz oain? Cartagena'n'e izan nitzan, Murtzi'n'e bi aldiz bai; Benidor'en bost bat aldiz bai. Geyo il onen azkeneako.

- Laxter nora?

- Ibiza joango naiz oain ondo ba'gare, Martxo'n. Juanita txikik eta, artuta ornen daukea, oain bean zail nao.

- Arantzazu'ra ez al zoaz?

- Tarte ezin arrapatu ordea! noiz joango naiz? Urtero joaten nintzan len, da lengo urten'e Murtzia'n. Bai baño aurreako ez nun zeatu ta geo urrengoako, betea zeola. Arreglatzen ba'det oain'e, Mayatze'n daukete azkeneko ordun, Mayatze'n, al ba'det e! Ez dao, ua urruti dao oaindik Jesús! ze ikusi pranko ba'dauket bitarten. Nik uain berrogei urte gutxigo bear nitun; ta ogei euki

ba'nittun e... pixkat sayatuko nitzan ibiltzen... baño kaka! zaartu in naiz ta...
Gaztetan ez nitzan ibili ta zartuta ibilli! bearkot.

- Batzuek zartuta ere eztira ibiltzen e?
- Eztuelako balio!

1992'ngo. Azilla

OAR OROKORRAK

Mendizabal da Urbistondo'tar Vitoriana "Bittori" andereak, 75 urte ditu. Gaztelu'n jayoa. Ezkondu ta gero Txarama'n ere bizi izan zan. Orain Tolosan bizi da. Bere izkera, beraz, geyena Gaztelu aldekoa da.

OAR BEREZIAK

| | |
|-----------------------------|--|
| Nitzen | EN bukaera, aditzan, Gaztelu ta inguruetakoa da noski. Baita Naparroa'n ere. Tolosan, ibai eskubi aldean ere bai. Ezker aldean Donosti'ko izkera erabiltzen dute, nintzan esango dute beraz. |
| Esperontzeola | "Esperon" - "espetu" Erdel itza. Naparroa'n ere asko erabiltzen dute. |
| Baño etzan azaldu - | Etzan - ez zan. Eman asierako z, tz biurtu ta aurreko itzarekin batu du. Au askotan egiten degu Gipuzkoa'n. Baña oraingoan ez du zen erabilli, etzan esan du; biak erabiltzen ditu beraz. |
| Etzuten | Ez zuten. Lengoa bezela. |
| Beai | Berari - Gipuzkerak itz-egiterakoan izki asko galtzen ditu. R izkia itz barruan danean, geyenetan galdu egidu. |
| Ala esateue | Abostegi-bidez laburtua. Ala esaten dute. Onelako laburpen asko ageri dira: "Ezautu'itut". (Ezagutu ditut)- "In ber zanean" (Egin bear zanean) - "Ume zaitzea" - (Ume - zaitzera) - "Atta berri nearrez neegana" - (Atta berriz negarrez neregana.) e.a. |
| Ni oso ondo zeatzen nitzan. | Bear dan itza gogoratu ezin danean, euzkaldunak asko erabiltzen dute "zea" itza. Emen aditzaren ordeko da. Bestetan aditz lagun izaten da. |
| Seitun | Erdel itza baña euzkal-erara. Erderan enseguida izango litzake. |
| Goseak akatzen | - Au ere erderatik, "akatzen", baña erderaz ez da esaldia era berean erabiltzen. "Acabándose de hambre" adibidez. "Muertos de hambre" esango litzake. |
| Makiñat | - Makiña = Multitud |

Ama etzan beñere gauza izaten.

- Esaldi jatorra. Orain "ez da kapaz" entzuten da askotan. Euzkera galtzeko bidea, maiz erabitzen diran itzak erderatik artzea alegia.

Ganaduak zeatzen zuen

- Berriz ere "zeatzen". Emen aditz ordeko da.

Iñolako gau giro txarra zen.

- Esaldi jatorra.

Amaika sufritu zun arek!

- Sufritu erdel itza baña esaldi jatorra. "Amaika sufritu

Ni zea batekin ibiltzen nitzan.

- Berriz ere zea itza; baña emen izen-ordeko.

Jarrio zioben

- Adizkera au bi edo iru aldiz erabilli du. Zioten.

Ze jarrera zeon ba an!

- Esaldi jatorra

Naezunen

- Len ere azaldu dira onelako abostegi-bidezko laburpenak.
Nai dezunean.

Asi ke

- Euzkerara sartuta dan erderazko esaldia. Orrelakoak kentzen alegindu bear degu.

Daukea

Au Gorri-Erri' ere erabillia. Daukate izango da noski.

Skia

Erderazko "siquiera".

Tartea ezin arrapatu ordea!

- Esaera jatorra. Errez ulertzen da.

Bearkot

- Abostegi bidez laburtua. "Bearko det".

On eitteigu

- Berriz ere laburpena. "On egiten digu".

Billatu zun etxea

- Billatu, arkitu esan bearrean. Asko erabiltzen da.

Makiñat astarrika ein genun baserrin!

- Esaera jatorra. Astarrika egin - Escabar.

Joskerari dagokionez, batzuetan erderaren eragiña nabari da. Baserritar euzkaldun euzkaldunen artean ere arkitu degu, Guziok alegindu bearco degu. Adibideak:

"Giñan ba lau anai-arreba" - Lau anai-arreba giñen.

"Ta ekarri zun andrea bate lanen etzekiña" - Bate lanen etzekin andrea ekarri zun, "Zeatio, oain dabilkigun Etxeto, ortik gertu nola bai daukeun" Oain dabilkigun Etxeto, ortik gertu bai daukagu.

Ala ere, geyenean joskera ona erabiltzen du.

ARZELUS'TAR AMALE'K

OARRA: Ulertu ezin izan ditudan itz eta esaldiak txuriz utzi ditut.

MUNGIALDEKO UME-KANTAK ETA BERTSO ZARRAK

1

Gure Nekane ez da joango,
atxurra artu ta solora.
Ez baldin joango bayaku,
bera kartilliaz eskolara.

2

Nekanetxu guriari,
usoak eperra ekarri,
beste danari,
baña edo biña,
bana edo biña,
Nekanetxuri amabi.

3

Nekane guriaren dote arriva,
burdinzaille bat iru zillokua.

Erregalotxua deko,
bere amonak itxita.
Iru "gallina tuerta",
ta dozena bat txita.

4

Nekanetxu geuria,
lorik ez egin basuan,
jan ez zaizan,
otsoren batek,
bildotsa zarelakuan.

5

Aurtxo txikiak lo gura dau ta,
ama emoizu titia.
Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokolaria.
Aita tabernan, ama lanean,
auxe bai negargarria.
Eskerrak zuri lore polita,
alaitzen dozun etxia.
Iñoiz aitatxo txixotzen (formaltzen),
bada, auxe pozaren aundia.
orduan bai nik erosiko dotsutazela
zuri zapata barriak.

6

Aurtxo polita seaskan dago,
zapi zuri ta jantzi bero.
Amomak diño; ene potxolo,
arren egizu lo-lo.
Txakur andia etorriko da,
zuk egiten ez badozu lo.
Orregaitikan ene potxolo,
arren egizu lo-lo.

7

Egizu lo-lo neure potxolo,
nik emongotzut (emongo deutsut) sa-
garra,
amoma bezain zimela,
tranlarala-tranlarala,
tranlarala-tranlarala.

- *Onako ume-kanta onek Iparraldeko euskeria deuko, baiña neuk entzundakoa da Mungia inguruko erritxo baten, Errigoitin konkretuki.*

8

Lo adi ene aingerue, amaren altzuan,
ire irri eiyerra bost espain xokuan.
Axolbion gutti bainan, nik tristura goguan.

Au gaitxatik kanpuan ta aita itsasuan.
Beazak aize beltza, meatzikaz ari zergai,
aldi luzia zeinen etsigarri,
arriturik ikaraniz lotiri,
bitxiari otoitz Eyinkuari,
egin dezan argi.

9

Lo adi lo maitia
ez egin nigarrik.
zerenian aur azkanik
emengo lu-garri
egin zenike aingirie
erri batez iratzarri,
pentsa bezan aitari
jin dakigun sarri.

10

Dilin danbolera egidazu
laster asiko naiatsu
alan ta bere lastertsuago
lepoan banerabizu.

11

Txikitxu polit grasiosia
egunsentiko izarra.
Denbora baten usten ebalu,
neuria bazintut bezala.

12

Gure neskarik edarranari
usoak eperrak ekarri,
beste danari bana eta biñe
oni beroni amabi.
Berau etxian ez zauan eta

bentanan dotsoz ipiñi.
Loretxuak bost orri deuko
krabelintzuek amabi,
zeure begitzu ederrokin
imaginia dirudi.

13

Garazitxu doanian
zaldi urdiñen gañian,
bosteun kaskabel urregorritzko
zaldiek eroan eiñean.
Beste ainbeste milla geiogo
atzeko petralerian.

14

Nongua da ori, nongua ori.
Zaldi gaiñean dabilen ori?
Garazitxu Torrontegikua,
zaldi urdiñen gaiñian.
Garazitxu Torrontegikua,
zaldi urdiñen ganian.

15

Lo-lotxu aingerue
zeruen ze barri?
Zeruen barri ona
orain eta beti.
Ume txiki polita
zer nai dozu orain?
edan dozu esnia,
ta andi eingo zara.

16

Nere txiki, nere polit, maite zaitut,
zatoz zaldi gaiñian, eroango zaitut.
Binbilin bonbolon, binbilin bolonboia.
Binbilin bonbolon, binbilin bolonboia.

17

Txikitxue zara baiña
asiko zara oindiño.
Asiko ez baziñake maitia
eneuskizula utxiko.
Asiko ez baziñake maitia
eneuskizula utxiko.

18

Artolok deko, Artolok deko plantie,
begire dagola, begire dagola, mundu
gustiko jentie.
Bilbon deko etxie,
oillo korotzez betie.

19

Itsasoan ure lodi, ez da ondorik ageri,
neure maitia ikusi arren pasako nin-
tzake andik.
Maitia maite zaittut, zeuk ala nai ba-
dozu.
Izengo naz zeuri zeuk gura banozu.
Neu bere zeuria ta zeu bere neuria,
olan pasako dogu guk biok denboria.

20

Ederra zariala pentsetan badozu,
espillu faltsu orrek engañetan zaittu.
Neure billoba zara, neure biarrerako,
ta nik artuko zaittut biar pasiurako.

21

Txiki-txikitxu eta polit-politxue
neuri emon eustiala zeure agindue.
Zeuri mantendutia agindu ezkerro,
emongo bear dotsuela orain edo ge-
ro.

22

Aitte San Antonio Urkiolakoa
askoren biotzeko santu debotoa.
Askok aginduten deutso San Antoniori
joan egun batian ta bestian etorri.
Durangon beste aldetik Mañarian gora,
aldatz andie dago San Antoniora.
Aitte San Antonio santu debotoa
askok egiten deutse San Antoniori,
egun batian joan ta bestian etorri.
Urkiolara joan ta zapatak apurtu,
Aitte San Antoniok barriek eingottuz.

23

Lolotxu aingerue, zeruen ze barri?
Zeruen barri ona orain eta beti.
Maria betiko, Maria nortako
astoaren berbak ez dire iñontzako.

MUNGI ALDEKO ESAKERA- ZAAR ETA ESALDI JATORRAK

- 1.- Edonon dauz txakurrek agiñek zabalik.
- 2.- Ez dok tontoa errotarie, artoan truk emoteko garie.
- 3.- Mariñeruen emaztia goizian senardun, arrastian alargun.
- 4.- Bai umia: Orrek "diru errementariak" dire.
- 5.- Koiztia (koizutia) dana da fazille, gatxena beran lekuen iztia (utxi) da.
- 6.- «"Oillogorretan joan" dire.
- 7.- "Oillogorra apereu" dau.
- 8.- Txorie "brintse" (birrindu) dau.
- 9.- "Biarragaz jositxe" nau.
- 10.- Nire ama "errenkuren egongo da".
- 11.- Azaroako egune argitu orduko gaue.
- 12.- Akabuko momentuen "atzia jo dozue".
- 13.- San Klemente Papa, edurre tipi tapa.
- 14.- Gizon ori "Jungoikoan aman etxetik" etorri da.
- 15.- Asilla otz, negua otz; Azilla bero, negua bero.
- 16.- "Urdaia katuen atzian dabillenan".
- 17.- Ez dau "zirkiñik be" itxi,
- 18.- lidian "porazuz" galdutako berbak dire orrek.
- 19.- Bai astoan uskiye!
- 20.- Goian Arantzazu, bean Oñati, andre politen billa dabil beti.
- 21.- Gizon ori "buruto" bat da.
- 22.- Ume ori "artiak artu eziñik dau".
- 23.- A "bururik eintxe" ibiltan da.
- 24.- Jakin eiñ bear da non-zer.
- 25.- Ak mutiltxuek "gorputze eiñ dau".
- 26.- Ume ori beti dau amaren "pentsuen".
- 27.- Orregatxjk ez dogu "gibel txarrik eingo".
- 28.- Eskilleria "arenetan" noa.
- 29.- "Motza baten" da gero!
- 30.- Ume ori "konde barrabana" da.
- 31.- Beintzat ona etorteko "atazia" kendu dogu.
- 32.- Erloju ori "artezetan" eroan dot.
- 33.- "Gezubeten" eskian joan bearko da.
- 34.- Ume ori "atzamarran punten" dabilkia.
- 35.- Ganaduek "arraskadan" eroan ebazan.
- 36.- Satza baiño alperraua da.
- 37.- Berekatza baiño fiñaua da.
- 38.- Ai Jaungoikoa!, bat eta bera naikoa.
- 39.- "Berezkorik" ez dau ezer.

- 40.- Emen nau "beste barik".
- 41.- Orrek ulla "sekule bedarra baiño sarratuau deko".
- 42.- "Bargetia baltzittute" dekiar mutillek eiñ dostia niri ori biarra, sentaillia!
- 43.- "Ekilikua", ilda ostean ekarri medikua.
- 44.- Egunon, alan eran.
- 45.- Nik ori "fiñian diñotzut".
- 46.- "Azken fiñian".
- 47.- "Lantzean-beiñ".
- 48.- "Musturre zorrotz" eukiten dau orrek.
- 49.- Bein ere ez da asten txepetxan arrautzatik antzarra.
- 50.- Ariketa (areik-eta) gaue eiñ artian egon giñen palaka.
- 51.- "Fiñian diñotsut".
- 52.- "Azken fiñian" bide batez deko.
- 53.- Zer dala ta zer ez dala; eurie eiñ dauala.
- 54.- Gizon ori "pepe eiñtte bizi de".
- 55.- "Asko geiau barik" balio deutso kotxiak.
- 56.- "Astion" (Astonetan) joango gara medikuengana.
- 57.- "Arfan bere" diru barik itxi dau aitte.
- 58.- Kiputze tripe utze ta lapur utze.
- 59.- "Arrezkero" (arez-gero) ez da etorri giau.
- 60.- "Orragiño" (orretagiño) eldu bear izen dau?
- 61.- Ardau asko edan "dauela ta nau".
- 62.- Oindiño (oraindio) baten be ez da etorri.
- 63.- Lenengo ta beiñ biarrian asi ta gero gerokoak.
- 64.- "Atagiño ta bere" ez dotso deittu amari.
- 65.- "Izen bere" persona (lagun) zistriñe da ta!
- 66.- Onagiño (onexetagiño) etor bear izen dau?
- 67.- Gaue eldu zala ta oira erretire nintzen (nitzoan) (Meñakan).
- 68.- Negar baten imiñi dau umia.
- 69.- "Barre zantzoka" (barre algaraka) asi ziren txistia entzunde ostian.
- 70.- "Ago bete azurregaz itxi" nauen neure urtekeriagaz.
- 71.- Mutil ori ona da beran barru barruen.
- 72.- "Beste geiauko barik" etorri naz ona.
- 73.- "Ama ta biok" joan gara Bilbora.
- 74.- Gero etxian "no-nor" (nor edo nor) egongo da.
- 75.- Emen dekozu indaba "altzi bet".
- 76.- Maraberiyeñ jdiye, baia non dau maraberiye?
Maraberiye: Diru klase bat.
- 77.- Beti erosten dozuz "pitxi-loriak" eta!

Asier Legarreta

BIZKAI'KO EUSKEREAREN IZKERAK

Itzaldia: Bilbao'ko Udalaren Kultura-Aretoa.
1993'ko orrillaren 20'an, arratsaldeko 7'retan.

Jaun-andreok:

Euskerea dogu Bizkai'ko gure izkuntza eta euskereak daroaz bere barruan gure aurretikoengandik artu dogun jakintzaren lekuko diran ezaugarriak. Orregaitik, euskerea galtzen danean, bera eta barruan daroan altxorra galtzen doguz, eta Bizkai'ko euskerea baztertzen danean, geu eta geure izakerea baztertzen gaitue. Orregaitik da tamalgarria, inditarren "reserbak" ameriketara dagozan antzera, gure izkuntza basoetara ta baserrietara baztertzen dabela ikus-tea. Orregaitik da pozgarria ekiñaldi onetan egiten doguna: Bilbao'n eta kalean euskerea ta euskeraz erabiltea eta beronen arazoak aztertzea.

Nik gaur artu dodan gaia Bizkai'ko euskerea dan lakoa agertzea da, baiña dan lakoa agertzen danean, arazoak be agertzen dira. Zati bi izango dauz ba gaurko berbaldi onek: Lenengoan Bizkai'ko euskera non eta zelan egiten dan aztertuko dogu. Onetarako nik egin dodan billaketa zeatza da Mungialdeari begira, baiña ez ain zeatza Bizkai'ko beste lurraldeai buruz. Bear ba'da nik esango dodazan ainbat gauza zuek entzuleok zuzendu al izango dozuez, zeuen lurraldean egiten dan euskerea ondo, nik baiño zeatzago ezagutzen dozuelako. Eta bigarren zati baten, Bizkai'ko euskereak dauzan arazoak azertuko doguz, barrutik sortzen jakozanak eta kanpotik ezarten jakozanak.

Izkuntza guztien arazo bat

Gogoratu dagigun, lenengo ta bein, izkuntza guztiak dauken arazo bat, izkelkien arazoa: Gauzak kanpotik ikusten doguzalako, uste izan geinke izkuntzak batasuna daukela, eta ez da ori orrelan: Alemanian, "lander" batetik bestera izkuntzak alde aundia dauka, Ingalaterra'ko izkuntzak alde aundia dauka batez be Ingalaterra'n bertan egiten danaren eta Ameriketakoaren artean. Iparaldeko Frantziatarak eta egoaldekoak ez dabe bardin berba egiten eta España'n Extremadura'n eta Asturias'en ez da gaztelera bardiña egiten.

Orregaitik, ez da arritzeko gauzea euskereak be bere euskalkiak eukitea eta bizkaiereak bere barruan izkera ezbardiñak eukitea.

Euskera osoari begiratu ezker, "doren euskera Bizkaia'n, "det"en euskerea Gipuzkoan eta "dut"en euskerea iparraldean eta Nafarroan agertzen jakuz, naizta errialdeen mugak eta euskalkienak bardiñak izan ez. Jakiña da euskalkiak banatzen dabezenak errekek dirala.

Baiña ez da ori orain azertu bear dogun gaia. Lotu gakiozan Bizkai'ko euskereari.

Ete dauko Bizkai'ko euskereak olako ezbardintasunik? Non eta zelan egiten da berba Bizkai'ko euskerea?

Baietz erantzun bear. Orretarako ez da bear billaketa aundirik. Guztiok daki-gu Arratian egiten dan euskerea eta F3ermeo'n agiten dana ez dirala bardiñak.

Baiña ori zeaztu egin bear dogu gaur. Toki bakoitzean egiten dan euskera-mota oneri izkerea esango dautsagu.

Izkera batetik bestera dagoan alde lau iturritatik etorri leiteke, batez be: Iztegitik, aditzetik abostegitik eta doiñutik.

Bermeo'n esaten diran itz batzuk ez dira esaten Arratian, eta alderantziz, Bermeo'n erabilten dan aditza eta Arratia'koa oso ezbaridiñak dira. Eta beste dana bardiña ba'litz be, Bermeo'tarrak euren izkuntzan dauken doiñua ta Arratia'koa ez dira antzekoak. Eta oraindiño itz-osotzea ta beste gai asko geratuko litzakez. Lan zabal ori egokia da Euskerearen Lurralde irudiak edo Atlas'ak egiten dabezenentzat.

Berbaldi onen arloa ondo mugatzeko auxe esan bear dot: Gaur abostegia artzen dogu Bizkai'ko izkerak bereizteko bide lez eta abostegia dala diño izkuntzalariak "izkelki-izti" edo dialektolojiaren Santutegia.

Bakartien abostegia

Abots bakarti edo bokal bi alkartzen diranean, eta ori itz askotan jazoten dan gauzea da, berba egiten dabenak erreztasuna billatzen dabe eta orretarako abotsak aldatu egiten dabez eta alofonoak edo abots utsak sortu. Ori geien jazoten da itzaren azkenean mugatzaileak jarten danean, baiña sarritan itzaren barruan be.

Esaterako, berez *alaba-a* esan bear litzake, baiña iñon be ez da esaten, Txori-erri ta Arratian *alabea* esaten da, Mungialdeko iparraldean eta Urduliz eta Leioa', *alabe*; Mungialdeko egoaldean *alabia* ta *alabie* eta orrelan Bermeo'n be. *Atable* esaten da, baita Ubidean asi eta Otxandio'tik, Durango'tik Gernika'tik Markiña'ra arte. Eta Ondarru'n *alabi*.

Antzera jazoten da azkenean -e dauken berbakaz.

Azkenean -i daukenakaz aldakuntza ugariagoak dagoz: *ogia* ez da iñon esaten. Txori-erri ta Arratian *ogie* esaten da, Mungialdeko iparraldean *ogi* eta egoaldean *ogije* (Frantziako "je" gaz), Ubide'n asi eta Markiña'ra bitartean be *ogije*. Ondarroa ta Elorrio geratzen dira kanpoan, gipuzkoaren mugan dagozelako-edo. Elorrioren *ogixa* eta Ondarroa'n *ogixe*. (1.º irudia)

Azkenean -o dauken berbakaz be aldakuntza aundiak dagoz, Mungialdeko iparraldean, Leioa'ra arte *beso* esaten da, egoaldean ostera *besoa*, Bermeo'n *besue* eta Ondarroa'n *besu*. Ubide'tik Markiña'ra *besue*.

Azkenean -u dauken berbak antzeko bidea dauke.

Jakingarri oneik, laburregi agertuak, kontuan doguzala, Zein izan leiteke ateraten dan ondorena?

Ondoren onetan Ondarroa ta Elorrio izten doguz kanpoan eta onelan zeaztuten dogu Bizkai'ko euskerearen irudia, abots bakarrak kontuan doguzala: (2n. irudia)

- Izkera bat: Mungialdeko iparraldea, Urduliz, Leioa.
- Beste bat: Mungialde-egoaldea, Bermeo, Ubide-Otxandio-Gernika-Markiña-Lekeitio.
- Irugarren Txori-erri-Arratia.

Iru izkera oneitatik, geien gastau dana bigarrena da, eta gitxien gastau dana edo zarrena txori-erri-Arratia'koa.

Beste arazo batzuk be aztergarriak dira, esaterako bakarti bi berba-barruan alkartzen diranean zer jazoten dan. Baiña au errez ulertzen da, len esandakokaz antz aundia dau-ta: *Gaur/geur*, *Bear/biar*, *bier*, ((*ber*); *Biar/bier*, *bijer*.

Goazen/guazen gozan.

Zaitut/zeittut/zatxuk,

Egon/ Ogon/on

Elorrio alde batera izten dala, Bizkai'ko izkera guztietan beste lege bat beteten da, metafoña edo agokaldirik agokaldira aldatzearen legea, esaterako iñon ez da esaten *aíta* edo *txakurra*, toki guztietan *txakurre* esaten da, legea onelan agertu lei: Aurreko agokaldian *i* edo *u* dagoanean aren lekuan e esaten da. Ez dagigun aitzu olako baldintzak daukazen berbak asko dirala, bear ba'da erdiak, eta orrek Bizkai'ko euskereari berezitasun aundia emoten dautso. Baiña izkera guztietan.

Lagundunen abostegia

Ikusi dogu zenbat aldakuntza izaten daben abots bakartiak eta zelako berezitasuna emoten dautson orrek Bizkai'ko euskereari, toki bakoitzean berezitasun berezia, baiña abots lagundunak be euren aldakuntzak daukez, toki bakoitzean ezbardiñak. Ikusi dagigun.

Gaztelera naiz euskeran ez dogu aitzu bear dana aldatzen dauan abotz bakartia, iraultzaillea *i* dala, *in*, *il*, *it*, *is* eta *iz* dagozan lekuetan *iñ*, *ill*, *itx* edo *itt* eta *ix* edo *itx* aurkitzen doguz.

Aldakuntza oneik ez dira egiten Txori-Erri eta Arratian, beste guztietan bai. (3n. irudia)

Beste aldakuntza bat gozoa gogortzea da eta au jazoten da gitxiena Bizkai guztian *s* edo *z* aurrean dagoanean: *ez dot/ ez tot*.

Eta alderantzi, gogorak bigundu egiten dira aurrean *n* edo */* dagoanean *on-to/ondo*.

Aldakuntza oneik Bizkai guztiko euskerearenak dirala uste dogu.

Beste aldakuntza bat Bizkaian berezia baiña Euskalerrri osoan egiten dana, surreratzea da. Ba-dakigu Frantzian eta Portugal'en zelan egiten dan surreratze au, baiña euskeran be olako zerbait ba-dago. Eguneroko berbetan ziur esaten diran surreratuak, *n* batez, beste leku batzutan galdu egiten dira: *Are-na/area*, *katena/katea*, baiña aurrean *i* dagoanean naste aundiago sortzen da: *Pasion/Pasiñoa/pasioa/pasionea*.

Beti lez *iñ* ori ez da entzuten Arratian eta Txorierrin, baiña beste jazoerak Bizkai'guztikoak dira. Aldakuntza au argien agertzen da toki-izenetan: *Galdakano/Galdakao*.

Bakartiak eta lagundunak batera artzen dauzan aldakuntzea, galtzea da.

Bizkai'ko euskereak galtze aundia dauka eta egunerik egunera aundiago dala dirudi: *Egingo dogu* esan bearrean *ingu* entzuten da eta *emon dautz* esan bearrean *emontzut*.

Galtze au Bizkai guztian jazoten da, gitxiago bear ba'da Elorrio'n.

Etan galtzen dana, erdia baiño zerbait gitxiago dala dirudi, %40 inguru.

Zer eta zergaitik galtzen dan gauza jakingarria da, baiña azterketa orrek urriñegi eroango gindukez gaurko berbaldi onetan. Naikoa izan bedi emen au esatea: *d*, *b* eta *g*, bakarti biren erdian dagozanean errez galtzen dira egin/e eta aditzaren asierako *dau* be errez galtzen da, ez dakigu zergaitik: *emon dautso/emontso*, *esan dautzut/esantzut*.

Eta azkenez, beste aldakuntza bat gogoratu bear dogu, aín zabala ez dana, baiña Bizkai'ko erri batzutan agertzen dana: Antzeratzea. Au era bitarik izan daiteke: Bakartiena ta lagundunena.

Bakartiena: *ikusi/ukusi, emon/omon, etorri/otorri*. Olako antzeratzeak ugari entzun dodaz Bermeo'n eta Azkue'k berak be aitatzen dauz Aezkoa'ko euskera (Naparroa'n) aztertzen dauanean. "Euskera" aldizkarian irakurri dot ori.

Lagundunen antzeratzea Bizkai osokoa dala uste dot: *ez nago/enago, zan/etzan...*

Beste toki batzuk artzen dauz Españatarrena dan j'k. Au estarrikoa da, baiña iguzia ta dunduribakoa.

Ez dago argi zelan sortu dan España'n abots au. Batzuk diñoe arabiarra-kandik artua dala, baiña ori ezin ziurtatu izango da, abots ori ez zalako oguzten España'n XV gizaldira arte. Españarrak ez eben *mujjer* esaten, *mujer* eta *muxer* baiño.

Antza dagoanez, ago-gaiñeko abots larregi egoalako eta alkarren artean nasteak agertzen ziralako, gaztelerazko izlariak estarrira aldatu eben abots ori, urteen joanean eta legerik emon barik.

Euskereak be Bizkaiaren zati baten erabilten dau abots ori, Gipuzkoan be bai, baiña nondik sartua edo non sortua dan itaundu ezkeru, ez dogu argibiderik aurkitzen. Ba-leiteke emen be agogaiñeko abots larregi egoalako batzuk agiñetara eta beste batzuk estarrira tokiz aldatuak izatea. Entzuteko gozoagoa dala uste dot *joan* esatea, *jjoan* baiño, baiña or dagoz arauak erriak ezarrita eta toki bakoitzean bereziak.

Bizkai'ko euskeran iru eratako j'k aurkitzen doguz: Erdel-itzetakoak, esaterako *Gerardo* edo *Jesus*, edo itz-ondoarenak, lexemarenak diranak, esaterako *jjoan edojjan* eta aditz-zati edo morfema diranak, esaterako *jjako*, edo *jjitut*.

Ba-dagoz berbalari batzuk oso-osoan *jj* abotsa bastertzen dabena eta be-ti esaten dabe *jauna* eta ez *jjauna*. Eta iparraldean, frantziatarren eragiña dauken ezkeru, Españatarren *jj* abotsa ez da iñoz be esaten.

Guk orain egin bear dogun itauna au da: Bizkaia'n non esaten da *j* eta non *jj*? Billaketa osoa ez dot egin baiña dakidana esango dot.

Erdel-itzetakoia toki guztietan esaten da baiña euskal itzelakoa.

Mungialdean iñon ez da esaten *jj*, ez egoaldean eta ez iparraldean, ur-rean dagoan Errogoti'ko *z/auzoa* dan Olabarri'n esaten asten da, itzen barrukoa dan *jj:Joan, jan*. Eta gero Gernikalde guztian, Lekeitioraiño uste dot esaten dala. Baita Ubidea'tik Durango aldera, be. (4n. irudia)

Baiña aditz-zatia dan *jj* ez dago ain zabal, Errigoiti'n eta Gernikaldean jako esaten da. Markiñaldian, ostera *jjako* eta *jjitut* entzuten dira.

Ezin ukatu *j* frantziarrak erabilten dabena, dunduriduna ta gozoagoa dala, gure ustez, España'tarrena dan *jj* baiño. Et *j* ori Bizkai'ko abotsa da, gipuzkoarrak ez dabe oguzten. Orrek Bizkai'ko euskereari dunduri eder bat emoten dautso. Esaterako *jjoan* baiño politagoa dala uste dogu *joan*.

Guretzat atsegingarri izan arren, ezin aldatu izango doguz anbeste erritan entzuten diran *jj*'k eta jarraitu dagiela bake-bakean.

Bizkai'ko euskerearen arriskuak

Sartu gaitezau orain, azterketa au egin ondoren, aurrean daukagun bizkaie-reak daukazan arriskuak aztertzeru. Batzuk kanpotik datozenak dira, beste batzuk, ostera, barruan daroazanak.

Kanpotik datozen arriskuen artean, bat ikasketan bizkaie-rea ez erabiltea da. Gure ikasleak Bizkai'koa ez dan euskere-ia ikasten eta erabilten dabe ikasketan, eta etxera eltzen diranean naiz etxetik kanpoan ikasle ez diranakaz artu-emonak dabezenean, euren euskere-ia erabilten dabe, baiña bardiña ez dan

lez, sarritan lotsatu egiten dira euskeraz egiten. Eta antzera jazoten jake etxe-koai edo beste norki elduai be: euren euskerea landu-bakoa ta txarra dala uste izaten dabe. Orra or, gure bizkaiera zein maillatan geratzen jakun: Lotsagarrri biurtzen jakun izkera baten maillan. Negargarria benetan.

Eta bear ba'da, ainbeste aldakuntza ta izkera daukaguzen ezkeru, bizkaiera landua erabilten ez dogunean, esaterako telebistan edo batzarretan, gure euske-reak ez dau irudi ona emoten eta orregaz barru-jaustea, konplejoa sartzen jaku.

Beste arrisku bat albiste-bideetan gure euskerea ez erabiltea da. Guztiok daki-gu gaur zelako indarra dauken albiste-bideak eta zenbat ordu egiten doguzan, umeak naiz nagusiak, telebistaren aurrean edo izparringia irakurten, eta ordu guzti orreitan, euskeraz ba'diardue, beti da geurea ez dan euskerea. Orrelan gure euskerea ez dogu iñoz lantzen, erri-maillan. Oker ez ba'nago, arlo onetan bizkaieraren alde lan egiten dauan bakarria Bizkai-Irratia da. Eskerrik asko esan bearko dautsagu. Eta albiste-bide edo aldizkarietan Bizkaieraz daukagun aldizkari bakarria ZER aldizkaria. Onek illero milla ta berreun bat ale zabaltzen dauz, baiña ez da gauza aundirik bizkaiera bizirik aterateko bideetan.

Irugarren arriskua, gitxi idaztea ta irakurtea da. Emen bizkaierazko liburuak sartuko litzakez. Argitaratzen dira batzuk baiña ez geiegi.

Edozein bizkaitarrek jakin bear leuke bizkaiera landuan idazten eta berba egiten. Ori ez dakiena abedetugabea, analfabetoa da eta egoera orretatik urten egin bear dogu. Ori egiten ez ba'dogu, Bizkaia'n ez da egingo berba bizkaieraz, eta ez uste izan beste era bateko euskerea sartuko jakunik. Erderea izango da sartuko jakuna, eta orduan gure euskal-nortasuna ta izakerea joanak izango dira. Tamalgarria izaten da arlo onetan Enkarterrian edo Araba'n jazoten dana. Ba-dira toki orreitan euskal oiturak eta izaerak, baiña utsune aundia izaten da izkuntza galdua izatea.

Aztertu dagiguzan orain barruko arriskuak. Oneik gaurko gaiagaz obeto bateratzen dira.

Barruko arriskuen artean, aztertu doguzan aldakuntzak dagoz. Aldakuntza orreik gure bizkaierearen aberastasuna dira, oian baten landara txikiak aberastasuna diran antzera. Or be agertzen da gure erritarrak euskerea errezago erabilten egiten daben alegiña eta iñoz zapaltzen ez dabezan lege ziurrak, baiña ortik kalte aundi bi jatorkuz: Bizkaian berton, batez be euskerea landu ez daben artean, eta oneik dira geienak, alkar ulertzeko eragozpen bat dirala: ipiñi egizuz Bermeo'tar bat eta Elorrio'tar bat alkarregaz berbetan eta arin ikusiko dozu, batez be lenengo egunetan, alkar ulertzea ez dala errez-errez izaten.

Baiña arriskua aundiagoa izaten da beste euskalki batzutako euskaldunakaz berba egiten dogunean. Guri errez edo naikoa errez egiten jaku gipuzkoarrakaz berba egin eta eurai ulertzea, baiña eurai gatxago egiten jake. Errez ikusiko dozu bizkaitar bat gipuzkoeraz berba egiten baiña nekez alderantziz. *Egigo dogu* esan ezkeru errez ulertzen dabe, baiña *ingu* esan ezkeru galdu egiten dira.

Urtenbideak

Gure bizkaiera zelakoa dan ikusi eta daukazan arriskuak aztertu ondoren, berbaldi au amaitu baiño lenago, arazoari urtenbide batzuk aurkitu bear dautsaguz. Oneixek eskintzen doguz emen:

Lenengo: Dakigun bizkaiera landu egin bear dogu eta bizkaieraz idatzi.

Egia da. Olako lan aundia dago eginda eta, zorionez, bizkaieraz idazten dogun guztiok antzeko euskerea darabilgu, naizta bakoitxak bere berezitasunak izan. Baiña bizkaiera landu ori plazara ateraten ez ba'dogu, galdu egingo jaku. Txalogarria emen kili-kili'ren lana.

Bigarren: Bizkai guztikoentzat edo beste euskalki batzutakoentzat berba egiten dogunean, aldakuntzak eta galtzeak kendu eta bizkaiera apaindua erabili bear dogu.

Eguneroko alkar-bizitzan ori egitea arrokeria edo erokeria litzake, etxeko euskereak be bere nortasuna daualako, baiña ez jente-aurrean danean: *lan ingu* esaten ba'dogu ez dabe ulertuko baiña bai *lan egingo dogu* esan ezkeru.

Irugarren: Bizkaierak aurrera egitea nai ba'dogu, asko idatzi bear dogu: aldizkariak, liburuak, iragarkiak eta abar.

Zori txarrez arlo onetan bide bi daukaguz: Batzuk atxeagaz idazten dabe eta beste batzuk atxe barik. Lenengoak *ere* eta olako batzuk onartzen dabez, besteak be..., bide bi ba'dira eta alkartzea errez ikusten ez ba'da, bide bietatik aurrera joan gaitezana, baiña bizkaieraz.

Laugarren: Albiste-bideetara sartu gure bizkaiera.

Orretarako egin bear dogun lana ez da atsegingarria, eta ez erreza "DEIA" egunkarian ez da erreza izaten idaz-lanak argitaratzea eta Euskaltelebistan banaka batzuk urtetan dabe euskera itz egiten eta eurak, sarritan landu-bako euskerea daukenak izaten dira. Orrelan gure bizkaiera alboratuta geratzen da. Baiña egin-bearreko gauzea da.

Bostgarren: Ikastegietara sartu Bizkaiera.

Eziketa arloan trebeak diranak ukattzen ez daben gauzea da au: Umeak lenengo ta bein dakarren euskerea erabili eta landu bear dauala, baiña ori ez da lortu. Bizkai'ko umeak asieratik entzun bear izaten dabe euren belarrietan barria edo nairoa barria dan euskerea, eta eurak etxean ikasi dabena, ostera, ez dabe lantzen.

Beste alde batetik, ikastegian, izparringietan telebistan eta liburuetan erabiltzen dan euskerea beste bat izateak, gureari nortasuna kentzen dautso, be maillako euskera ba'litz lez.

Azkena

Eldu gara, entzule ta adiskideok, gure ekiñaldi au amaitzeko ordura. Bizkaierearen berezitasunak zeintzuk diran eta non agertzen diran ikusi dogu, ortik eta beste iturri batzutatik jatorkuzan arriskuak aztertu doguz eta ekintzarako bide batzuk eskiñi.

Izkuntza mailla orretan aztertzeari ez jako garrantzi aundirik emoten gure artean, baiña izkuntzalariak arlo orretan egiten dabe sarritan euren billaketa-lana eta gauza ederra ta pozgarria da.

Beste alde batetik, geure etxean ikasi dogun euskereak, geure jakintzaren aziak barruan daroazan euskereak, gutzat balio aundia dauka. Orregaitik izan bedi gure ikur-esaldia: **Bizkaiatarrai bizkaieraz** eta ez dagigun aitzu beste esaldi gogoangarri au: **Bizkaian bizkaieraz egiten ez ba'da, erderaz egingo da.**

ESKERRIK ASKO.

Olazar'tar Martin'ek.



BEDARKIAK ETA ABEREA

Bedarkiak eta abereak: erreñu bi. Bedarkiak eta abereak, euren txikian, aren baten dabilta, jatekoa artzeko eran izan ezik. Landarak soilki, argi-biltzearen (fotosíntesis) bitartez, batu ta tegiratu daikie eguzki argitiko indarra. Abereak edozein soin-eratan landarei atxikirik dagoz, bear daben janaria jade-tsi al izateko. Osto-muskerrik (klorofilarik) ez daben bedarkiak, bakteriak eta ontoak lez, abere-erara elikatu beara daukie nai ta nai ez. Eta baliteke lenengo abere-kizkiñak osto-musker ori osotzeko gaitasuna galdu eben bedarki-aldaketa bat besterik ez izatea. Gorpuzki kaxkarren artean ba-dira, alokarrik geienak lez, oso-osorik bedarki diranak; beste batzuk, amebak eta paramekiak lez, guztiz abere diranak; baita beste batzuk, euglena lez, landara ta abere, bizuak diranak be.

Bizi izateko zelan edo alan janaritu bearra dogu, ta are geiago asierako bedarki-aberetxoak. Landarak, arazo ortarako, euren tokietan geldi eguzkiaren argi-zain egozan, argirik geien xurgatzeko sail zabaletan egokiturik; abereak, barriz, janaritzeko landara bearra ebelako, ibiltzen asi ziran jateko billa. Landarak, bizi naita, alkarren leian gorantza ta alboetara zabaltzen asi ziran; abereak be, nor-geiagoka ortan, eraso ta zaintze-erak ikasi ta ugaldtu ebezan. Zugatzantaiak, zurezko soin lakarrez orniduta, kizkin-ormadun landarén gaiñetik jagiaz joiazan. Abereak, euren buruak zaindu ez-eze, erasora ta jarkitzera be jo eben, eta oneik, aragi-jale egiñik, lenengo arrapatu ebezanen sabel-erraietako bedarki-jatekoz elikatu ziran.

Eta emen daukaguz erreñu bi, oso aundiak; bedarkiena ta abereena. Urteak joan eta urteak etorri, gero ta geiago berezitu ta bakandu ziran erreñu biok. Luzaro, antza, itxasokoa genduan bizia. Ala lurrekoa be bai? Buru beste aburu ontan; baleiteke, ba, biotan batera samarrekoa izatea. Itxasoa, lurretik bakandu zanetik gendun bizitzarako gai; baiña lurra be, naiz-ta lenengo aize-ekaitz izuga iz jorratua ta gain-soil arritsuz betea agertu, laster jantzi soiñeko apain muskerrez. Itxasotik gaur, garai illun areitako kondaira biribiltzeko, lurrrak baiño gai geiago damoskuz; itxasoak, izan be, gosteun bat millo urte dirala bizi izandako abere bakan areitatik, gorputza iru zatitan bananduta eukien maskorrek, trilobiteak, arri (fósil) biurturik eskintzen dauskuz. Beste bizi-asierako izaki txikietatik, bedarki ta abere kizkin batekoak ziurrik asko, gaurko bakteri antzekoak nunbait, etxaku orain aztarrenik be gelditzen.

Bizia, beraz, aurre-gunean eratzen yaku, aurre-gun au kizkiñetan eta kizkiñok bedarki ta aberretan. Landara ta abereok gero, zelan eratzen dira alkarren artean? Bakotxari dagokion tokian, zelan aurkitzen ete dira? Bedarki batzuk bakarrik bizi dira, baita abere batzuk be; beste landara ta abere askok naste-

ko, alkargoetako bizikerea naiago dabe. Belakiak, adibidez, alkarregaz bizi dira nastean, kizkin-saillak bizi izateko ta askoren onerako eratu ta egokituaz; uretako arrain eta lurreko pizti mueta batzuetan be, txiñurrietan lez, olako alkar artu-emon beteak ikusten doguz. Orrez gaiñera iñoiz alkar-bizitza edo gerkeraz *sinbiosis* deritxon gertakaria be ikusi oi da; au da, bedarki bi edo abere bi batean alkartzen dira, alkarri laguntzeko naiz irugarren gorpuzki bat eratzeko alkartu be; apakiñean, esate baterako, ondo bat eta aloka bat alkar konpontzen dira, eta batek ura edoski ta sutik irauteko bere susterrak kurutzatzen ditu ta besteak, ondoaren suster artean bizi dalarik, janaria ontzen dau beretzat eta ondoarentzat. An eta emen ez dira bardiñak alkartze oneik, itxas barrutik ondartzetara aldea aundia bai dago.

Dala itxasoa dala lurra, Jainkoak aukeratu eban, ortzia ta lurbira banatzean, biziarentzat kuma. Esan dogunez, ke-lurruna, laiño-jariozko nasta lurra bizi-azia artzeko gai egin ziranean, kimi-eraketa batez -ez dakigu zelan, ez noiz-, lenengo bizi-guna eratu zan. Giroak lagundu eutson ini, ezpairik bage, goitiko sakeak eta kresalak berak be bai. Meatz-gai ta txuringo (albumin) naste bate-tik jagi zan aurrenengo bizi-txinparta. Biziaren aurreguna, bada, kizkin biziari kemena damotsana txuringo antzeko muiña da; aarrautzearen zuringoa, esaterako, ezta besterik kizkin eskerga bat baiño.

Gaurko gizonak, izadiak berez dagiana osotu nairik, alegiñik asko egiten dauskuz. Bere lantegian orduak eta egunak errerik, orduan izan zan lakoxe giroa egin eta bizi-muiñak osotzeko bear dan guztia gertau oi dau; baita antxiñate illun artean eguratsa dardar-azo oi eben lakoxe tximist-indarrez benetako indar-lertzeak sortu be. Era ortan gizonak jadetsi dau txantxakiak (enzimak) eta beste txuringo-muin batzuk egitea, lenengo bizi-gunaren antz-antzekoak nunbait. Alan be gauza bat palta yake muiñoi, au da, bizitz arnasa. Au Sortzaille gurenak bakar-bakarrik emon leikeoe.

Ura naitaezkoa da bizi izateko, bai bedarkientzat bai abereentzat. Ura ta ikazkia bear dabez bedarkiak, eta oneik izan oi ditue kizkiñak bear dan neurrian, aldean dabezan zer guztiak azkor-azi ta igikunean sartzeko. Klorofila daukagu bedarkietan -muin bakan ezkutua noski-, ur-ikazkia ta almidoia nastatuz landarei bizia ta kolorea damotsena. Kolorea! Bai, egun batean berde agertu yakuzan lurra ta itxasoa, zelan berdetu ziran iñok be jakin ez arren. Zein lenago? Esan dogunez, ezin jakin ziurrik. Albumin-pikortsoa, alan be, oso zingil beratza, urari eusteko azal-inguruan estalki pitiña baiño ez daukalarik, ezta gauza uretik kanpora bizi izateko. Ta orrelaxe izango ziran bizi-asikerako landara ta abereak; gaur be, ba, ainbat milloi urte igaro ondorean, kizkin bako sointxoak, kanpotiko mintz babesle barik, bizi dira oindiño. Gorputz bakanago ta ur-zaleago dira bedarkiak; uretik kanpora, barriz, gorputz biurriagokoak eta indartsuagoak agertzen yakuz.

Lurrean naiz uretan landarak eta abereak ba-dabez euren giroa ta lekua, bizi al izateko ta ugaltzeko. Baiña argia bear dabe, antza, bitzuok. Eta lantegi baten, tresna naiz makiña bat lanean jarteko, gai guztiak eukita be, indarra palta ba'da, ezin lanik egin. Era berean jazo zan nunbait ur-lurrekin be biziari txinparta atera ta ekiñean ipinkeran. Eta Jainkoak esan eban: "Egin bei argia", ta argia izan zan. Bizi garean biribil ontan, ur ta lur, orduantxe agertu yakun berdetasuna. Dana dala, gaur jakitunak dirauskuenez, naiz itxasoan naiz lurazalean batera samar asi zeitekean bizitza, ortarako gaiak bietan egozan eta.

Onela edo, edatu zan itxasoetako bizitza: Gaiak ez dakigu zein unetan (momentutan) artu eban bizi-arnasa; baiña, bein artu ebanean, urteak eta gizaldiak aurrera ta izadi-bizitza be -landara ta abere- milloika ta milloika urtetan ugariago ta biurriago (complejo) egin zan. Lenengo sointxoak kizkin batekoak izan ziran, gero, urte-gurpilla biraka, areitatik sorturiko izakiak gorputzño bereziak ebezan, au da, jan, jana eio, arnasea artu ta ugaritzeko bear diran atal apartekoakaz agertu ziran. Laster agertu ziran orrelaxe belakiak, bedarkiak, koralkiak eta aumalak (medusak); baita kokoak, arrrak, itxas-izarrak eta ola-koak be, eta azkenez, oin giltz edo dorapillo askodun abere txikiak eta oskol sendoakaz ornidutako maskor aundiak. Eta gaur -ez gero beiñola baizen ugari- or daukagu itxasoa mueta guztietariko bedarkiz, arrainkiz eta maskorrez gaiñezka.

1.- Bedarki erreñua

Gaur zugatz-tantai aundiak dakusguzan arren, len-bizia bedarki txikitik asia dogu. Ta txiki ta aundi, bedar itxura daben izaki guztiak landaredian sartzen doguz. Itxasoa, barriz, txit ugaria dogu landare-bizitzan. Eta ur-landaredia deritxogu itxasoko uretan azi ta ugaltzen dan bedarki pilloari. Eurotatik kaxkar ta asi-masikoenak, bakarrik edo aitz-mokorra erantsita bizi diran alokak doguz; oneitan asko itxas-beeran agirian geratzen diran arren, euren kizkin-ormetako orean dauken liskak (muzilagoak) osorik legortzea galazoten dautse: ur-landaren likintasuna liska orren azaleko erioa da.

Muskil-landarak (talofitak), au da, susterrak orriak eta kirtena olako berez-kuntza aundi barik daukiezan bedarkiak, bitan sailkatzen dira: alokak eta ontuak. Alokak klorofila edo musker-ostoa daukie ta, beraz, argi-biltzearen bitartez eurak jateko bear dabena eratu likie; ontuak, barriz, arri bat, enbor bat edo olakoren bat bear dabe euskaitzat eta eztabe ainbeste argi-biltzerik. Geienak ur-landarak dira ta singiretan, ur-maeletan eta itxas-barruko bazter guztietan aurkitzen doguz. Mueta askotakoak dira, kizkin bateko ta txiki-txikienetatik eundaka metro luze azten diranetaraiñoak; mueta guztiak, alan be, soineuna bardin samarra dabe, ta eztaukie zur-soiñik ez beste mailla goragoko landarak euki oi daben eun berezirik be.

Itxas-erraia iñoizkoren baten gizonarentzat aberaski iturri galanta izango dala-ta, gaur iñoiz baiño geiago aztertu ta arakatu dabe angoak eta emengoak, bai argazkiz bai soiñuz, bertako ezkuturik asko agirian jarriaz. Uretako bedarki-erreñua lurrekoa baizen zabal aberatsa da, ta gizonak, orain edo gero, egiñalak egingo ditu meatz-oxin orri onurea aterateko. Ur-barrutia guztiz edatua dalarik be, era askotara ta naikoa errez berezi ta zatiaz daikegu, naiz zearka egiñiko lerroz naiz gotik beerako zutez. Ur-bedarkirik geienak ur-azalean eta sakonean bizi dira, baita abere ta arraiñak be. Ur azalean batzuk alderrai dabilz, au da, ara ta ona urak darabiltzaz, eta oni *plankton* (alderrai) deritxoe jakitunak, urak darabiltzan landara ta abereen sailla; beste batzuk, naiz-ta landarak berezko indarriz izan ez, igeri dabilz euren oldez, eta sail oni *nekton* (igalari) deritxogu. Itxas-ondarrean be, landara ta abere, bizi ugaria dogu, ta oni deritxo *bentos* (sakon).

Erreñu bientzako bailo dau sailketa onek, bietan baitaukaguz bedarkiak eta

abereak. Eta sail biok, ur-gaiñekoa ta ur-azpikoa, ez datoz gaizki. Lenengoan, izan be, azalean eta ur-bitartean pillo ikaragarriak jitoan eta azken bako moltoetan doaz urak eroanda, milloika landara ta abere alderrai ta noraezean, geienak edo asko beintzat txiki-ikuskiñez ezik ikusi ezin daikeguzanak; ur-azaleko bigarren saila berezko sointxoak, ara ta ona euren indarrez dabiltzanak osotuten dabe; bedarkiak ez dira berez aldatzen, sail au beraz arraiñak eta itxas-abere aundiak, ots, baleak, itxas-zakurrak, phokak, izurdeak, zeroiak eta tronpak egiten dabe. Bigarrenean, barriz, bedarkiak eta abereak dira jaun eta jabe, ondarrari itsatsita geldi dagozanak eta urazpi gaiñean narras ara-ona dabiltzanak. Igerilarietatik geienak aloka arreak eta arraiñak doguz.

Karkuluetan asi ezkeroz oso arrigarria dogu itxasoko bizitza. Milloika ta milloika urteetan dabiltz igeri ur-zear bizidun bedarki ta arraiñak, eta era ta kaizu guztietakoak ibilli be. Euneko 72 itxasoko urak estaltzen dau gure izarbel onen azala, ta beronen erdi-erdiko sakontasuna 10.793 metrokoa da. Kresal ur guztia lurrun biurtu ta bertako loi-lakarra itxasazpi gaiñean zabaldu ta banatuko bagendu erabat, azpi au la 56 metru lodi izango litzaken loi-geruzaz estalita agertuko litzakigu, ta bizidun gorpuzkiena euneko bat edo izango litzake; beste guztia itxas-landara ta aberean azur-utsez, milloika urteetan egiña nunbait.

Ortaz be, sail bitan eratu geinkez danak. Batzuk, barne-eran, azpi bat bear dabe itsasteko, berlakiak eta anpernak lez, ibiltzeko, izarrak eta zangurruak lez, atsedean artzeko, txirlak, billauak eta tramanak lez; edo zear-zuloak barren-tzen dabez, ar-taldekoak eta xixari artekoak lez. Bigarren saillean, ostera, azal-eran arat-onat dantzari edo ur-erasoan igeri dabiltzan guztiak, alan be bizi izateko itxas-azpi tinkorik bear ez dabenak. Izarrak, belakiak, belakiak, masko ak eta oskoldunik asko, zartuten diranean, itxas azpian bizi dira; gaztetan alan be itxas azaleko iizieak doguz. Beraz, beeko ta goiko sailleen artean ba-da artu-emon pizkat.

Bedarkien bizitzan batez be, argiaren eragiñak zer ikusi aundia dau. Eguzki-izpiak azaletik 200 metroraño argitzen dau, bere erraiñu indarra 500 metroraño be zerbait eltzen dala. Landara bizi ta joria daukagu azal argituan, eta argi bako sakonean ez dago bedarki-bizitzarik. Lur-ertzetik zerbait aldendu ezkerok itxas barrurantz, ur-azpiak bizi-indarrez gaiñezka aurkitzen dira, mueta guztitariko bedarki ta aberez beterik. Kirten aundikoak be azten dira, ur-landara kuntze agirikoak (faneroganak), edaskak (ranunculus) eta urre-potoiñak, osto guztiak ur-barru dituela bizi diranak; otzikerak eta igel-bedarrak (nuphar), ur gaiñean iñarika erakusten dituen orri zabaldunak; baita ur-arlantzak be (potamogeton), batzuk urpean naiz igerika bizi diran osto kiderdunak, eta beste batzuk txingola antzeko ostoak daukezanak. Geienak tinko dagoz, beian geldirik; baiña, ur-tilista (lemna) ta padarra (stratiotes) lez, uretan zabuka dabiltzanak edo beintzat ur-azpiari oratzen ez dausienak be ba-dira.

Itxas-landaririk geienak ur-gaiñean loratzen dira, ta azi-autsa (polena) lurrekoak lez kurutzetu ta zabaltzen dabe. Bakar batzuk, baiña, zosterak lez, lorak osoro murgilduta daukiez. Azal inguru guztian daukiezan tututxoen bitartez, jaki lobelak eta lurrunduak xurgatzen dabez; sustrai txikiak dabez an ezkerok, kirten eta orrietako odi-izpiak gitxi baiño ez yakez edatzen. Geinek be, aize-tarteak erakusten dabez kizkin-soiñean, arnas artzeko oxigenuz beterik. Ur-debarrik geienak betikoak dira, ta euretatik batzuk era arrigarriak daukiez bi-ziari eutsi ta iraun-eragiteko; utrikularia deritxonak adibidez, neguko otzetik be-

re burua zaintzeko bear ditun pipillez jantzita agertzen yaku udazkenean; oneik berez jausten yakoz eta, neguz ur-azpian atsedu ondoren, urrengo udabarrian zabaldu ta tipildu egin oi yakoz barriro be; beste batzuk gorde egiten dabez jatekoak, aragizko aieta ta zaiñen bitartez ugaritu ta edazten dirala.

Itxasoko landararik ugari ta jorienak kolore askotako alokak (algak) dira. Drude'k beiñola onela tokitu zitun: ipar-burukoak, tropikokuak eta ego-burukoak. Goikoak Irlanda ta Frantzi'raiño jasten dira sortaldetik, sarkaldetik barriz Ipar-Amerika beeraiño; erdikoan barrutia lur-tropikoko landaredia baiño iparrago ta egorago zabaltzen da, sargazo-mueta barruan arturik; egorantza, azkenez, feofikariak agertzen yakuz geienbat, goikoakaz antzik ez dabenak, kizkin askodunak eta osto-musker estalidunak. Olakoxeak doguz, eder luzangak, Fucus taldekoak, *Laminaria*, *Agarum*, *Alaria*, *Macrocistys*, *Saccorrhiza*, *Nereocistys* eta abar.

Alokak euren kolorez be sailkatu geinkez: *arreak*, *gorriak*, *orlegiak*.

Aloka *arre* batzuk txikiak izan aren, beste batzuk ba-dira munduan ezagutzen doguzan landararik aundienetarikoak be. Australia'ko eukaliptu batzuk 150 metroraiño jagoten ei dira, ta *Macrocistys* batzuk, benetako itxas bedarrik dirala, berreun metro be luzatzen dira. Dauken koloreagaitik deritxe arreak, eta gozoan be iñoiz aurkitu arren, kresalekoak doguz geienik. Arkaitzari erantsita, edozein itxas-ertzetan daukaguz; itxas aundietako egal arritsu ta ondo gitxikoetan, izgora gogorra dan lekuetan, ura beerantza doanean legor geratzen diran ertz-sail luzeetan, antxe agertzen yakuz aloka pillo ugariak: len urak estalitako arkaitzak orain alokaz beterik daukaguz. Ur meak atsegin yakez, baiña eguzkiak joten dauan alderdia batez be. Olatuen erasoak errez jasan oi dabez, arri-mokorrai oldarki ta sendo eutsirik; mueta batzuen soin-lodierak, *lessonia* deritxenak esaterako, gizonaren beso antzeko lodiera emoten dabe. Alokak, beraz, ez dira kizkin moltso erabako batzuk, atal bereziko soiñak baizen.

Aloka *gorriak* be, arri artean bizi diranak, ugariak doguz. Oneitatik batzuk, *delesseria*'k lez, kolore gorri-gorria daukie, ez geiago ez gitxiago; beste batzuk, karearri artean sartuta bizi diralako, pizkat gitxituta daukie euren berezko margoa; onetariko askok, kizkin-mintzetan kare-ikazkia txaritzen yakelako, maskor itxura artzen dabe. Oneik be geienak itxastarrak dira, ta gorago aitatu doguzan arren antzera, gelatxo oso-osoak daukiez, mintz, erdiune ta guzti, kizkin askodun gorputzak egiñaz. Geienak ur-azalean bizi yatzuz, eta argi-biketarako egokiak dira. Berezko edertasunean ur-landaretatik bikaiñenak eurok ditugu, bai lits leunez bai grimu itxura apaiñez.

Ba-dira oindiño aloka musker edo orlegiak, txikiak eta kizkin bakarrekoak; ara ta ona dabilta, euren igikunak zigor edo zaharo antzekoz egiñik. Alkar bizitza dagie ta moltso baktxean kizkin barriak sortuaz ugaritzen dira; *volvox* urrezkoa, adibidez, soin-biran daukazan gela lakoak osotzen dabe. Gelatxo oneik batzuetan, milimetro bat edo bi luze dira-ta, begiz be ikusi daikeguz, eta arrigarriagoa dana, *Caulerpa* deritxona neurkin-amarren edo dezimetru batzuk neurtzera be eltzen da. Lurreko landara itxurea dabe, zurtoiña itxas-ondarrean azal-unez etzanik; zurtoin edo muskil ortatik jaioten yakez gero, lekuan lekuan, orri iduriko kider batzuk, mutur-ertz txiki batek eutsita, beian suster antzeko batzuk ur-azpiari oratzen dautsela. *Caulerpa* batzuk, *macrodisca* deritxona esaterako, gupil itxurako ostoakaz guztiz dotoreak doguz.

Eta era guztietako alokak argia gura dabe, argi-jario ugaria. Origaitik edo, ura sakonago ta itxas-bedarkioak muetaz be aldatzen doaz. Ondo argituriko goialdean, gorputz andi-andikoak azten dira; beerago, sakon samarrean, argi gitxiagoz, goikoen antzekorik ez daukagu, ta bateren bat ba-da be, oso murritz erkiñak, eta bertan azten diranak, aloka arreak doguz, diatomakari sendi-koak eta beste txiki batzuk; oindiño beerago, illun aunditan ezta aurkitzen bedarkirik, bizkar-landarak edo soin-gai ustelen pentzura bizi diranak izan ezik. Aloka muskerrok, argizale porrokatuak baitira, eguzkiak ondo emoten dauan gaiñekaldeetan bizi yakuz geienbat; beste batzuk, arre mueta berezi batzuk batez be, ur sakonagoan idoroten dira. Gorriak ontan neurritsuago doguz, eta naiz ur aundian naiz itxas-ertzeko iparrera begira dagozan leza-zuloetan ederto datoz.

Ur-landaredian, gitxi-asko, bedarki-adar aundi guztiak daukie euren antzekoa: alokak, irak, ontoak, oroldiak, apakiñak, lore-landarak eta gingildunak. Eta saillik aundiena alokak osotzen dabe. Azi, ugaritu ta bizi izateko zurkaitz, esportzu edo tente bat bear dabenak ondarrean azten dira; olako euskai barik ara ta ona dabiltzanak, ostera, ur-azalean. Beian aurkitzen dira, esan dogunez, gorputz aundi ta itxura ederrekoak; goian alderrai dabiltzan txiki ugariak. Itxaso, beraz, eremu aberatsa dogu giza-bizitzarako be, ur-gaiñeko aloka ta bedarki asko arraiñentzat janari diralako ez bakarrik, gizonak bere industri ta kimi-gauzetarako itsas-landara ta abere oneitatik ainbat sustantzi onuragarri atera leikezalako be bai.

Aloka mueta guztiok, eta aitatu barik itxi doguzan beste txikiagoak, ore lodi nasietan pillotu ta, itxas-abere adar askorentzat, jan-giro ederra osotzen dabe; arraiñak, maskordunak, arrak, oskoldunak, itxas-lora, olagarru ta olakoak aloka moltsoetan aurkitzen dabe igeslekua, babesa ta janaria. Itxas zabal zear ugari be ugari idoroten diran soin-aletxoan artean, uretik, ikazkai urgetik eta ura xurgatzen daben beste menastaetatik, alokak bakar-bakarrik ateraten daben eurentzat bear daben jatekoa. Ta, ondorenez, itxasoan bizi diran beste gorputz guztiak, ezin geiagoz, alokak bear dabez bizi izateko.

Giza-bizitzarako be gora ta garrantzi berezia daukie alokak. Bedarki onek janez azi ta bizi diran ur-abere geienak eskintzen dautse gizonari janaria, azurrak, narruak, bitamindun orioak eta beste obari batzuk; itxas-birako toki askotan, ederto apainduta ipiñi ezker gozoak dira-ta, jan egiten dabez alokak; gorputza arinduteko ta, aloken gai lingirdatsuak erabilten dira, baita gozokiak, itzotz-edariak eta olakoak gogor-azteko be; gauza askotan gaur oso onurakorra yakun yodoa be itxas-alokak dakarskue, gorago aitaturiko *Laminaria* ta *Agarum* muetak, adibidez; aloketatik, e e ezker, lur azala ongarrizteko ederra dan autsa atera oi da; baiña bedarki onein garrantzirik aundiena, argi-biltze (fotosintesis) bitartez munduari dakartsoen mesede ikaragarrian datza: munduan egiten dan argi-biltzetik euneko 90 eurak bakarrik dagie.

Zertan dago, edo zer da argi-biltze au? Landara ta abere, bizi izateko, arnas artu bearra daukagu. Bion artean, alan be, ba-da bereizkuntzarik: landareak, berak beretzat aukertu ta beregandu dauan ikazkaia erre daroa; abereak ez dagi orrela. Landareak, antolabageko soin-alez baliaturik, bere burua janaritzen dau; abereak, barriz, ikatz-urak bat-egiteko ez baitira gauza, edo bedarkierreiñutik artzen dabe janaria, edo alkar jan daroe. Ura ta ikatz-ordeia bear dira biziari asiera emoteko, ta ondo zabaldurik daukaguz gure izarbelean meagai

biok; argia ta osto-muskerra (klorofila) be bai, bear dira. Ur-mukulu aundiak doguz itxasoan, ibaietan eta zingiretan; lur-sabelak be iturriak eta ezotasuna ditu, ta azkenez, eguratsean, lurrunduta daukagu. Sorburu guztiotatik artzen dabe landarak, eta urak dakartsie ikatz-lospela, gasa, ikatz-ur erara kizkin-barruraino sartzen yakena.


Ikatz-ordeia, gasa, eguratsaz naste aurkitzen da. Aitu ta agortu leiteke, baiña ezta egundo agortzen. Zergaitik orrela? Abereak ez dagie landarak lez, bestera baiño, abereak ur-ikazkaia bakandu ta berez jarten dabe, ikatz-ordeia (dioxido) egiteraino nunbait; landarak ikazkai edo gorputz egin daroena, abereak gorputzgetu egiten dabe, gertakari bion artean olako dedun (ekilibri) ta oreka sorturik. Era orretan, eguratseko ikatz-gasa, gitxi-gorabera, beti da bardin samarra. Abereentzat arnas eziña dan gasa, landarak bizi-ats biurtzen dauskue, euren osto-musker edo klorofilaren bitartez. Alokak eurak bakarrik, egunero, 500.000.000 tonelada ikatz-ordea iruntsiten el dabez. Lan arrigarria, benetan, guri igungarri yakun atsa bizi-arnas biurtzea!

Azken-itx lez, ba, iturri bikain dogu itxas-ibaietako alokena. Ta aberastasun orren onura artzea egoki litzakigu. Jakintunak, ain zuzen, ortan ibilli ta saiatuak doguz urte askotxo dirala, au da, alokak landu ta azteko bide billa, janari-ordezko ta indar-sorburu izan dakiguzan. Ta saio ta azterketa orretatik auxe aterra dabe dagoneko: ur gozoko aloka batzuk beintzat ikatz-ura, proteinak eta bitamina C ugari daukiezala; indar-iturri lez be, aloka jagi ta txantxartuak (fermentado) metano ta olako erreka lospel biurtu leikezan gas batzuk emoten dabezala.

Alta Onaindia



Euskerazaintzako Ekintzak Arrinda' ren itzaldia Deba'n.



KOPROGENAK

Orri Orixkak (X'ek)

Itz-aurre (X'ek)

Itz-aurrearen Atarla

Inglaterra'rako bidean gebiltzan 3.000 toneladako 'Cantabria' itxas-ontzi zaarrean. Itxasoko gaitzak artuta nebillen ta Derrota zeritzan gelatxoan neukan nere etzan-ogea. An nengoen etzanda jeikitzeke iñungo gogorik gabe. Txomin, berriz, barruko txo, nere kamarotera bueltaka ebillen, ni, kapitanaren seme kokkorra, ogetik jeinki-arazteko aitzaki billa:

- Jeiki adi, mutik, atuna atrapa dogu-ta.

Egia zan. Zimarroi ega-motz zatar aundi bat, kordelaren muturreko amuari trabatuta, lur-gaiñean odol-patsatan saltoka... Begiratu triste bat eman neuzon eta berriro lotara. Zutik egon ezin. Giro artako itxas-aize meeari ere eziñezko zitzaion ni esnatzea.

Ogeitamar minutu pasa orduko emen da berriro Barrika'n jaiotako Txomin, emezortzi urteko sukaldeko laguntzaille gaztea:

- Baña, zer dok, Anes?
- Etzanda joateko gogoa. Burua jaso ezin.
- Jaik zer-edo-zer.
- Ezin dot.
- Zer nai dok sukaldetik ekartzea?
- Jan ezin.
- Irakurri TBO onek.
- Geiago mariatenok...

Orduan mutil gazte jator a neretzako kontu-kontari asi zan:

- Bein, Bristol'en, lanak amaituta gero, berba-jario gendozan lagunarte gozo batean, barruan, aize-tximiñitik etorren preskuria artuten. Ustekabean, an goiko zuloan, ipurdi borobil bat agertu zan 'Mantequilla de Soria' esanez eta geure gaiñera kaka egiten. Kontramaixuak, an bertan eukon eskopetia artun, eta, 'Barbantzos de Busturia' erantzunaz, gatzezko tiroa sartun eutzon iperdi-ko zulotik.

- Egia ba'zan, sartun dedilla kalabazan.
- Egia dok, txo.

- Ni enok txo; eu az txo.

Beste barik, al de egin eban Txomin'ek sukaldeko lanetara.

Bigaramonez, nik begiak iriki orduko, an neukan Txomin aldamenean:

- Jeiki, Anes, balea ikusten dok-eta.

- Ni atzo baño okerrago nago, Txomin.

- Jeiki, jeiki, balea ez dok edonoz ikusten-da.

Jeiki nintzan Txomin'eri gustoa emotearren eta danbalanka an joan nintzan balea ikustera. Baleak edo, zirkin egiten zuan, an oso urrutian, zeruak itxasoakin tope egiten dauen toki artan:

- A balea dok. Aundixa.

- Bai, e?

- FZ dok ikusten, ala?

- Bai, bai 'tu moro monein six o klok, etorten ba'nok, ikusiko nok', esanda ogeratu nintzan berriro.

Naaste-borrasteko izketa ori beronek erakutsi euztan Calais'eko portuaren geltokian. Gizon eldu bat egoen zai praka-motxetan, bernetako ille beltzak erakusten. Orrek ez gaitu gaur arritzen, baña 1.924'garren urtean bai apur bat. Txomin, bere erritik kanpora, ausarta zan, gerturatu eta esan euzton:

- Bus etez zikliste?

Besteak, marmarka, ingelesez erantzun zion. Txomin'ek, berak ere inglesa dominatzen ebala erakusteko, auxe erantzun euzton:

- Tu moro monein six o klok (Biar goizeko seiretan), etorten ba'nok ikusiko nok.

Gure ingles praka-motza oraindik be ao-zabalik egongo da.

Ogean etzanda nengoan berriro. Zortzi arruako arri borobillak baña karga aundiago eukan neure buruak. Eguerdi-eguerdian amen da Txomin aragi-xerra erreka eta patata frejituak eskuetan dabezala:

- Jaik au, marivaren kontrakoa dok-eta.

Zintzurretik, zamatik barrura, ezer pasa ezin. Txomin nere aurean egoen kezkatu. Amalau urte nebazan eta berak emezortzi. Barruko gazteenak geu giñan eta ondo artzen genduan alkar. Bere nereganako kezka benetakoa zan:

- Eik indar.

- Ezin dot.

Ezer jateko gauza ez eta irakurtzeko ere ez. Bein-gañean zutik ibiltzeko eziña... Sukaldeko lanak amaitzean amen dator Txomin:

- Zer moduz?

- Txarto.

- Ori ez dok ezer. Ori pasaten dok eta pasako dok.

- Bai, bai; ala bearko.

- Eik parre apur bat eta entzun Bermio'n pasa zana: Udaletzeko atze-alde-tik, kartak botateko buzoi barrixa egin eben. Erriko idazkaria erdalduna zan eta onela esan euzton Kanuto Atabal'eri: -Da un bando para que en adelante las

cartas las echen en el buzón que está detrás de la Alcaldía. Kanuto'k erdera gutxi ekien eta bandoa euskeraz emotia pentsa eban. Asi zan erriko kantoi guztietan:— Parranpanpanpan... Emendik aurrera kartak botako dozuez alka-tiaren atzeko xulo-xulotik...

Barrerik egiten ez nebala ikusirik, ariari eldu eta arrapalada bizian ekin zion, etenik gabe, iturri-polpol baten antzera, baña begi arrek ematen zuan ura ez zan batere garbia, orixka baizik, kaka koloreko eta usaiko... Or ziar dabiltzan iskirimiri eta txiste guztiak bota eustazan aurpegira. Eta nik, zirkiñik bez.

Nerekin ezin ebala ikusirik, alde egin eban eta an dator berriro eskuan ka-ka-koloreko liburuxka eskuan astintzen ebala:

— Tok eta parre egik; Barrika'ko abadeak emonikoa dok; ez pentsa...

Ez neukan irakurtzen asteko astirik eta gorde neban TBO'en artean. Ori ikusita, aurrez-aurre bere aurpegia nerearen parean, eta, asarre itxurak egiten, asi zan kantari:

Kaka zuretzako
Kaka neretzako
A ze gauza ederra dan
Mundu guzientzako.

Naiz izan aberatsa
Naiz izan pobria
A ze gauza ederra dan
Kaka egitia.

Kaka zuretzako
Kaka neretzako
A ze gauza ederra dan
Mundu guzientzako...

Jarraitu eban aurrera, baña ark amaitzerako, ni loak artuta nengoen. Alaz be, nere irudimena ez zegoen lo: Mendipe baten nengoen; zeruak ireki ziran euri-jasa neure buru-gañera botateko. Euriakin batera errekako urak azi zira-nean, or nun datorren neregana sugearen antzeko kakazko mostro aundia, eta irentsi ninduen. Mostro aren sabelean, kaka artean jira-bueltaka, erori nintzan kakaz betetako beko zulorarte. Belarriak, begiak, sudurra eta agoa kaka-berakoz gañezka nebazan; arnasa artzeko burua kaka artetik jaso nuenean, an aurrean zutunik neukan eriotzak bere sega pasa eustan zamatik. Arin sartun neban nere burua kaka artera...

Ittomenak emonda, esnatu nintzanean, biotza neukan saltoka bere lekutik urten naiean. Estutasun aren larriakin marivak alde egin eustan. Jeiki nintzan arin-aringa Txomin'en billa joateko, baña oraindik illunabar zegoen, egun-sentiaren zai. Sukaldea utsik, itxas-ontzia geldi eta kapitana timoian.

—Aita, zer gertatzen da?

—Eldu gariela Cardif'era.

—Eta, zertan gaoz geldirik?

—Maria-goraren zai.

—Zergaitik biar dogu maria-gora.

—Bestela ez dagoelako portuan sartzerik.

- Ez dago urik portuan, ala?
- Ura ugari dago atzeko errekatik; baña, portu onek maillak ditu eta portuan zear igo egin bear da eta lenengo maillan sartzeko, maria-gora bear dogu portuko atea ireki eta barrura sartzeko. Gure ostean atea itxiko dira.
- Zertarako atea itxi?
- Biarren maillako atea irikitzeko eta bi mailla onek berdintzen diranean, orduan pasako gera bigarren maillara.
- Eta, maillak or amaitzen dira?
- Mailla geiago ere badagoz eta gu gorago joango gara.

Piñuak eraman genduzen ontzia gañezka eta amabost egunez ekin zuten aiek legorreraten. Goizeko zortziretan asten ziran jaso-gailluak lanean, piñuak barrutik legorrera ateratzen: kubiartakoak lenengo eta bodegakoak ondoren.

Zarata aregaz esnatzean, burua eteratzen nuen nere gelatxoko leio borobilletik, ango batetik besterako mogimendua ikusteko. Begika makarrak kendu eta gosari txikia egitera: poteko esne lodi gozoa kafe ugariakin. A irentsi eta kubiartara, lanean ebiltzenak ikustera. Amar terdietan eten bat ematen euzoen lanari gozaltzeko: arrautza pareta, aragi-xerra eta platanoak ondoren. Ez nebazan sekulan ikusi be... Jan ezin. Gauza memelagorik...! Kafea artun eta berriro be, barruko piñuak mollako trenbidera.

Lau terdietan amaitzen zan lan-biarra. Aurpegia garbitu, bizarra kendu eta bazkaltzera. Ondoren atsedena; libre egozanak, errira; baña, ez guztiak. Batzuek beti gelditzen dira barrutik irten barik... A zer atsegiña izaten zitzaidan, illunabarrean, kubiartagañeko txikote eta soka-bildumetan jarrita, kontu-kontari denbora-pasa egotea, denbora luze... Zeru-sapaia urdin-beltz, izarrak kiñuka nir-nir, erriko argiak ur-azalean dantzari, aize goxo meea baborretik... A zer egun zoragarriak an igaro nituenak!

Nere lagun Txomin kale-baserriko umea zan eta euskera jator baten jabe eta erri-eskolan, orduko eskola erdaldunean, erdera ikasia. Odolakin ikasia. Ez maixuaren odolakin, bearko lukeen bezala, bera zan umetxo euskaldunaren odolakin baño. Tarteka bota oi zituen alako 'castaña oscuro' batzuek. Ori gertatu zan gau batean, ixeka eta barrez asi ziran erdaldun batzuek:

- Badakizue zer egin deutzuet gaur? (Esan eutzen euskeraz) Neukan galzterdi zikiñeñean zuentzako kafia pasau eta biar be berdin egingo deutzuet.
- Habla cristiano.
- Cristiano más que tú, erantzun eutzen.
- Goazen, Txomin, emendik asarratu baño lenen.

Gaba artan umorea eta barruko pakea galdu genduen eta joan gintzan lotara. Bigaramonean, TBO'en artean neban kaka kolorezko liburutxua topatu eban nere ogea eiten joan zanean. Onela zion liburutxuak: COPROGENAS. Páginas Turbias, por X. con un prólogo de X. Precio UNA peseta. Inprenta de P. Hernández: San Sebastián. 1910. Liburua eskuetan zuela agertu zan neregana:

- Begiraik zer gauza bitxiak dakarren liburu onek.
- Goazen farol aren azpira eta karel gañean jarriko gara.
- Entzun Irakurleari zer diotzan egilleak:

Koprogenak

Koprogenak, e? Itzak arritzen? Griegorik estudiatu ez dozun seiñalea. Iztegiari begiratzen ba'diozu Kaka griegoz Kopros deritza. Koprogenak, Kakatik-sortuak dira. Orri orixka onek kakatik sortuak direnik ukatu ezin.

Bai, nere irakurle maite, biotzeko axukre koxkorra, garbiena baldin ba'zera be, kontuz, ez orri auek mespreziatu, itxas garbiaren apar zuritik (Venus beza-la) sortu ez direlako.

Jaso tapakia, sartu bildurrik gabe sudurrak eta usañetik nolako amak mundura ekarri dabezan asmatzen ba'dezu be, ez ikaratu, segi aurrera eta txastatu, txastatu bildurrik gabe orri orixka auetan gordetzen dana, eta, literatura aldetik, bereala ezagutuko dozu orri onen egillea ez dala txarri-urde edo zimaurretigiko euli bat, kaka ez duelako kaka-utsagaitik erabiltzen.

- Zer iruditu zak, Anes?
- Mutil, nik kaka egitea zer dan badakit eta askotan larri ibiltzen naizela kaka egiteko ere bai; baña, ortik gorakoak...
- Entzun eik ondorengo au.

II

Kaka artearen alde

Izenburu onek esan nai dau, literatur lanetan atsegin utsa billa bear dala, beste ondoriorik gabe. Eta, ori ala ba'da, nun beteko dozu zure asmoa Orri Orixka auetan baño obeto?

Jantziari begiratzen ba'diozu, zer bertso eder borobil belarriaren gozo! Zer errestasun-jario apalki bakoitzean! Zer izkera jator ederra!

Utikan, alde, ori entzun da gero, muturra okertzen dabezen orrek, onela esanaz: Umeentzako jostalluak, populuarentzako susko-erroberak, mami-gabeko azal utsak! Modernismotik pasiak dozak: Burutasunetan illunak, jazkeran narrasak, izkuntzaren ederrari iperdia emoten dautzoenak.

Eurok lauuko bertso bat ondo egiteko kapaz ba'lira, egindo leuzkie; baña, ortarako be ez dira. Pavo-realaren antzekoak dozak eta olletegiko esia gaindu ezin dutelako, goietan dabillen arranoari, txistua botatzen dautzoe. Arlote utsak. Alkarri intzentsua emoten konsolatzen dira, onela eanaz: Zein ederrak geran!

Baña, gogoan izan nik erabiltzen dodan gaia ez dala marmol zuri garbia, kaka bigun zikiña baizik, zeuek urrundik makilla bategaz be artuko ez zendukiena.

- Eta, au, Anes?
- Euk Artea mendiko arbola besterik zer dan ba'dakik, Txomin?
- Gure eskola-maixua Castilla-Mancha'koa zan eta egunero egunero irakurtzen euzkun D. Quijote de la Mancha.
- Izen ori neuk be entzunda daukot.
- Nundik?

- Zornotza'tik. Ispetore erdaldun bat etorri zan eskolara eta Errotako Peilo'ri onela galdetu eutzon: -Quién escribió el Quijote? -Nik ez, jauna. Eta, maixuak ispetoreari: -Sinistu egiozu, Jauna, Pello'k ez dau gezurrik esaten. Alde egin dau asarre ispetoreak eta burni-bideko geltokira eldu danean, bertako jefeari esan deuzo gertatutakoa eta onek erantzun: -Jauna, maixuak ala esan ba'dau, ala izango da.

- Eta, euk zer diñok?
- Ez ebala Pello'k egingo.
- Ez neban usten ain tontoa ziñanik.
- Txotxo, ni kapitanaren semea nok eta eu sukaldeko txo.

Bidaldu neban Txomin pikutara eta txakurraren salara eta alde egín nion, lo-gale nengoen-da.

Bigaramonean zai-zai nengoen illunabarreko solas-aldia berritzeko. Amorrua emoten euztan txo baserritar arlote arek neuk baño geiago jakiteak. Barruan mariñel guztiekin nebazan ar-emonak eta guztiek onartzen ninduen, bear ba'da kapitanaren semea nintzelako edo, baña, nere benetako laguna Txomin zan.

- Txomin, zer dakartzu gaur?
- Atzoko leloa, irugarren Itzaurreko zatia. Interesgarria dok: Kaka eta morala.
- Ez dautzut sinisten. Morala zer dan badakik ala? Joanari bide motxetik, luzatu gabe.

III

Morala eta Kaka

Ondoren datozen bertsoetan konseillu zoragarriak daude gorderik, naiz-eta kakatan bilduta etorri, eta uskar-usaíñez gozoturik. Guztiak beteko ba'lira mundu zoragarri bat sortuko litzake gure errian pake eta zorionez betea. Artea eta Morala, biak alkartuko lirazke kakatan.

- Zer deritxok?
- Asiari lenbailen bertso oiekin.
- Itzaurreari besterik begiratu barik?
- Orain, zer dator?
- Kakaren filosofia.
- Euk ulertzen dok?
- Platon, Aristoteles, Quevedo eta abar datoz amen...
- Orduan, pasaik aurrera. Ostean?
- Kakaren historia literarioa.
- Eta, ori zer dok?
- Elertia egiten dabenen kakarekiko ar-emonak, bai Grezian eta bai Erroma'n be.
- Zer ar-emon?
- Kaka eta puzkerrak bizi osoan laguntzen digutela jaiotzetik librate mundu bazar guztietan.
- Ori esateko naikoa dok `Kaka zuretzako / Kaka neretzako...' euskal abesti zaarra.

- Gaur eguneko kaka literarioa ez dik aitatu nai?
- Zergaitik ez?
- Oraindik eze eta fresko dagoenez, atsa dariolako; sikatu ondoren agurtuko dau. Eta orregaz amaitzen dozak sarrera guztiak.
- Bazan ardua! Eta, nor da liburuxka onen egillea?
- X baten azpian jesuita bat izkutatzen dala esaten dabe eta donostiarra zala, onela esaten bait du bertso batsuetan:

"Musa del Urumea
En tí me meo
Musa del Urumea
En tí me cago".

Bi X daude liburuan, baña izan liteke egillea bakarra izatea, onela dio-ta ltzaurrearen aizkeneko lerroetan:

"Y no digo más, porque corro peligro de descubrirme a mí mismo... ya que el autor de 'Páginas Turbias' y yo somos casi, casi la misma cosa. Y al buen entendedor..."

Eta, besterik gabe, asiko gara "Orri Orixka"kin.

1

Zartatzen du Torkuato'k bere andrea
apurtu duelako platera
orrelako juez zuzenak orde
eraneun goizean
apurtu zitun lau dozena.

Arrazoi du Platon'ek esatean
guztiok ditugula
ipurdiko zuloan illeak.
Ikusi ezin, arranea.
Ori egiten dute besteak.

2

Don Serbando kexaz ebillen gaixoa
kaka zuelako berakoa.
Kexaz ebillen Don Arturo elkorra
kaka zuelako gogorra.

Bere suertearekin
egokitu ezin
ez Pello eta ez Joakin.

Goszetik ebillen Rufo jauna jolasean
sarrosa gorrien artean.
Kaka-larriak emandio bat-batean.
Kendu prakak eta ipurdia aldean
larrosak utzi ditu kaketan
atzeko begiaren koloretan.

Esaerak dionez gauzak ikusten dira
ikusmira dagozen begien neurrira.

4

Don Felix Tronbon zan asto puxantak
eta ontzia puska ziolako neskame xarmantak
eman zion ipurdian alako ostiko galanta.
Neskameak miñez eta tatarrez
sudurrak bete zizikion puzkarrez.

Gutxien usten dunak
artzen du erantzuna
berak merezi duna.

5

Balbino gizarajoak
esteak zitun elkorrak.
Esteak mogitzeko asmotan
mogimenturik izando ba'zan
rízino-olíoa artu zuan
eltzekara betea.
Orrenbestez
mogitzen zitzaion estea.
Komunera egunero-egunero
zoazten krístau zorioneko
izan eiozute erruki
jan bear eta kaka ezin
dabilienari.

Goizetik ebillen Rufo jauna jolasean
larrosa gorrien artean.
Kaka-larriak emandio bat-batean.
Kendu prakak eta ipurdia aidean
larrosak utzi ditu kaketan
atzeko begiaren koloretan.

Esaerak dionez gauzak ikusten dira
ikusmira dagozen begien neurrira.

4

Don Felix Tronbon zan asto puxantak
eta ontzia puska ziolako neskame xarmantak
eman zion ipurdian alako ostiko galanta.
Neskameak miñez eta tatarrez
sudurrak bete zizikion puzkarrez.

Gutxien usten dunak
artzen du erantzuna
berak merezi duna.

5

Balbino gizarajoak
esteak zitun elkorrak.
Esteak mogitzeko asmotan
mogimenturik izando ba'zan
rizino-olioa artu zuan
eltzekara betea.
Orrenbestez
mogitzen zitzaion estea.
Komunera egunero-egunero
zoazten kristau zorioneko
izan eiozute erruki
jan bear eta kaka ezin
dabilenari.

Gizarteko zan Don Balbino
gizaseme dotorea
eguerdian goiz ondiño
agertu zan gizartera
purua ezpañetan tente-potente
goizeko purgarik gogoratzeke.

Emakume ederrez inguraturik
guztiak zorabiatzen zituan
bere ao-jario gozoakin...
Baña unerik ederrenean
este danak zarataka
gutxien uste zuenean
tatari-tatarika
asi zan puzkarka
bat eta bi eta iru eta lau...
Eten ezin turuta otsa.
Geratu zan Don Balbino
gorri-gorri larrosa
gorriena baño gorrigo.
Otsa ez zan ezer
otsaren ondoren
zeturren zeturrena.
Aizkenean plasta
irten eutzon kakak.
Ikusten ez zan baña
sudurretan usaña...

Ondorioa badu gertaerak:
purga eta konzientzia arazoetan
jartzen ba'zera arriskuan
kaka praketan.

6

Desiderio jaun zuurak
poltxa du naiko ximurra.
Ipurdia garbitzeko
kastu aundia dalako
ez du paperik ibilliko.
Ez zaio kakik paltako
gaItza eta alkandoretan
txaboi eta lixubetan
joango zaizkio joango

aurreratutako guztiak
paperetan.

Ona erakutsi garbia
merkea beti da galestia.

7

Rekaredo degu gazte lerdena
ta oiña zapaldu diote kalean
oso asarre desapio egin dio
aizken odoletaraiñoiko desapio
bere oiñen zapaltzalleari.
Kale egin du Rekaredo'k pistolakin
bildurraren bildurrez
prakak zikindurik kakez.
Lagun-artean bere burua zuriturik
onela dio: Kale egin dut bai
baña badakizute zergaitik?
Tiroak urten dit kulatatik.

Konzientzia ta oorea garbitzeko
alkar iltzen zabilzatenok.
Zer irabasten dezute orregaz?
Konzientzia sumintzea kargaz
eta prakak zikintzea kakaz.

8

Jaun Benantxio iritxi zan presaka
komun zikin illun batera
oiña sartu zuen zulo zikin artan
andik anka ateratzean ordea
bernetatik dariola ugari kaka.

Zure arazoak kontuz aurrera eraman
ankak sartu nai ez ba'dituzu kakatan.

9

Pello'k Elbira'ri maitez ekiola
zabelean sortu zitzaion burruka.

Eutsi nai zion aizeari, baña nola?
Aizkinerako irtzen zitzaion putza.
Larrosa bezin gorri onela Biotza:
Elbira, zure maitez larri dut biotza.
Elbira aingerutxo,
jo dezu benetako
gezur-suspirioa.

Orain arte, maitasun,
egin zaitue itsu.
Emendik aurrera, ordea,
gorra ta sudur gabea.

10

Astirik ezertarako emateke
Don Amos gertatu zan osorik
kaka-berakotan larritasunik
audienean esteak bete.
Komunako portura eldu da baña
estutasun aretan botoirik
askatu eziñik presaka
kaka guztiak praketara.

Ames ederrenetako gure batela
sarri ondoratzen kai-barrean.

11

-induaba babarruna
indiarra baba beltza
nere amamaren ezpañetan
trumoiaren oiartzuna
arloteen orfei onena,
bete bai nere sakela
esperantzík ez duna
ikusteko bei-okela!
Egunero Don Pako agurketan
babarrun-pertzaren aurrean.
Ain zitun gustokoak
ekaítza sortzean eta
eguraldi txarretan
iru errosario osoak
errezatzen oi zitun

indiar eta babarrun
ez zitezen galdu
udamilletan.
Jai egunetako jakiña zan sakea
bi babarrun imi bete beteak.
Igande artan ordea
ibillalditxoa ematera
irten zuenean
berakoak eraginda bat-batean
ixilpetako lanean
lau soro zimaurtu zitun.
A zer barruko pakea!
Esteak legortzeko larri-aldiari
amaia eman nairik
artarako zeuden emaitza osoak
erabilli zitun gau aretan.
Dana alperrik, orduan zer egin?
Ipur-zuloari kortxo bat epiñi.
Baña, zas
kaken presioaz
kortxoa
aidean dijoa
eta kaketan plast
gizarajoa!

Diru-gosea ase eziñik
zabiltzatenok
orra or nun dezuten
giza-tentelok
Don Pako'ren atzeko
begi-itsuan
zuen etorkizunaren
ispillua.

12

Barruko estearen griñak
puzkarrez lasaitu naiez
prakak zikindu zitun kakez
Moktezumak.
Napoleon'ek egoera berean
kakaz bete zitun bere galtzak
Napoleon izan barik ere
makiñatxo batek
zikindu ditu bere prakak.

Grifa okerrari sokarik ez luzatu
putzetan asia kakatan bukatu
nai ez ba'dezu.

13

Eserita ondarretan
Epaminondas zegoan
itxas baztarrean
aidean zangoak
uiñekin jolasean.
Zapatarik buzti nai ez
t'ipurdia zion jartzen
olatuari pozetan
bein eta birritan
amar milla bidez.
Zapatak legor, baña,
mando aundiak,
beratzen ipurdia.
Aizkenerako, jakiña,
jokabidearen ordaña,
almorranak ederrak
begi itsutik ikusten
zeruetako izarrak.

Arrezkeroz edo
esan zaarrak dirau:
Ipurdia gorde
zapataren orde.
Eta bestela au:
bi gaitzaen artetik
txikia aukeratzea komeni.

14

Don Tomas tripazai arloteak
eltzekara gaztaña irentsi zitun
gau batean.
Euskal gaztañak, ordea,
barnean dute aizea.
Gaua pasa zun
gizarakoak puzkarka
tiro eta pun
orixkatuz izarak.

Onela zion damuz:
Egin duzu pekatu
ta ondoren dator
merezitako zigor.
Erein dituzu aizeak?
Sortu zaizu tenpestadea.

15

Don Bixente aurpegi-ximur
ta gogorra ezur
gaztearoan
kaka nolatan
egiten zun
gogoratuz
pulsoan asi zan
ipintzen arrautza
baña
indarren paltaz
kakatan plasta.

Ala diote esaera zaarrak:
garai-aro bakoitzak
baditu bere lan bereziak
eta bere ekintzak.

16

Joan ausartak eskatzen du biziki
puzkarrak botatzeko eskubidea.
Pellok ordea
ondorioa du atera orti:
puzkarrak bezela
kaka ere botatzeko libertadea.
Joanek ori ukatu diolako
zu kangreju reazonario zera
bota dio aurpegira
ipurdi-gaietan kaka
puzkarren ondorioa da-ta.

Olatu-aparraren
mutur-muturreko
gizaseme prestuak
pentsamentu guzientzako

eskatzen dezute
libertadea
eta era berean ukatzen
indarkeriaren eskubidea.
Baietz puzkarra
t'ukatu kaka?

17

Baldomero'k bere puzkarrak
bota oi zitun zarataka
ta urdetzat zeukaten danak.
Don Bernardino'k puzkarrak
bota oi zitun ixillak
orregaitik zan danentzat
giza-seme oso fiña.

Arrazoi Filosofo sakonak:
Mundura zoaz mundura
garrantzirik aundiena
itxurak, motel, itxurak.

18

Laterriak sortu aurretikoa da
komunera orok joan bearra
sabelak bere larri-aldian
eskatzen duen erara.
Mundu guztietako izakiak
ematen du bere abixoa
konzientzi-barrenean
tripeesteetan bezela
garbi gode dezagun anima
eta diz-diz alkondara.
Orrelako abixoari
begiak itxitzea
ez da ausarta izatea
zuergabea baizik.
Puzkartxo aul batengatik
komunera korrika joateak
badu bere akatsik,
botako dezu aizea
susko bolanderak eta
aizetxo meeak
kakarik ez ordea
ez bait dago labea beti

ogia egozteko beroki.
Don Matias dezu orrelakoxea
gizonik fiñetan fiñena.
Amar alditan gutxienez
jeiko zaizu gauero komunerako
ipur-zuloan aizeak agertzerako.
Baña estu -ta-larri izarditan
indar guziak egin arren
kakik ez da iñundik agertzen.

Geiegizkoak dituzu txarrak
kakatan txirristen da ausarta
bildurtia ikaratzen du puzkarrak
maiz gertatzen oi dana:
txikiak intxaurrak
aundiak zaratak.

19

Gizon ospetsuari gerta oi zaion bezela
joan zitzaigun Don Klemente komunera.
Erditze ona espero zuelarik
onela ekin zion kanta-kantari:

"Naiz izan aberatsa
naiz izan pobria
a zer gauza ederra dan
kaka egitia..."

Baña ez alperrik.
Traba zan mokordoa
aundi lodi elkorra
ez aurrera ta ez atzera
zulotik irten ezin
labatiba guztiak alperrik.

*

Badegu esaera zaarrik:
Sustantziko arazoetan
ari fiña goruetan.

20

Bonbarda koronela
bere ustez da

ondoko ikutze eta zirrara. Atzerrian, Beñatek oiñak ipiñi orduko, bere burua barkarti eta, bildurti sumatzen du. Errudun gizartean. Eusko-biltokiak ezagun arren, bera baztar zalea da. Ixilkorra, apartekoia. Anemengo albisterik ere usma egin bear ditu, zerbaiten jabe izate-arren. Ezagutzen zutenok, aorik ez zuala irikiko bazekiten. Igandetako pestak, zapatuetako gaupasak, eusko billerak; utsezko jaitzat bai-zeuzkan berak. An biotzean, arazo aundi bateren pixua? Benbenetan misterioz jositako gizona? Etxezuloan beti, bere Edurnekin beti? Bekoki illun, itz bakan, irri-girorik ez? Gaixoaldi luze artan ere, iñor gutxi gixitaz, eta minbiziak suntsi zuenean ere ezagunen dolu-agur urri eta aldenduak.

Eleberriak, irakurala ikusgura ukipena ernetzen dizu. Peru, mutil) egiña, aita Beñat ilda gero, aberastasun aundien jabe egiten da. Ezkontzako aukerarik izan ditu, oso egokiak ere bai. Elisabet, begiko eta oso ona. Alare, neska onen joera eta zaletasunak beste bidetik dijoazte, gizaldiaren aldeko jarduna, au da, beartsuen eta gabezikoen arteko ekintza, on-egitea.

Peruk, ordea, ariari elduta, beste eginkizun garrantzitsu bateri dagokio arduraz eta arretaz eskuartean artzea. Au da, Auritzera el, eta ordaintak gauzatzea. Une ontan eleberria goi-maillako erantzunkizunez jazten da. Egia da, bai, ilketak eta lapurretak, diru-zalekeriz sortutako okerrak izan zirala. Kontrabandoko ibillera triste batean, bide illunean, gauzatuak. Ondorioz igesia izan zutenak, Ameriketara izkuta bearra. Orain eun urte, bizilegeak zorrotzak ziran, desberdiñak gaurko aldean. Fedea sakonago, pekatua pisuago, bildurra samiñago. Oso bestelakoa, orduko ingurumaria.

Albisu jaunak une onetan gora aundiko zer-ikusia erasten dio eleberriari. Peruk, bada, itxas-ontzian sartu Atlantik-ur aundi eta ugariak igaro bear illabete inguru, eta noizbatean Euskalerrira el, erail zuten familikoen aztarrenen billa. Azkenengoz Igone neska, ildakoen alaba bakarra. Igone, neskame dago, Donostin.

Igone neska ederra da benetan. Urtean Peruren kidekoa da. Pakeak egiteko Auritz'ko apezak moja-etxean eratzen du billera. Peruk, belauniko aita zanak egindako oker aundia aitortzen du: ilketa, lapurreta, izenen trukea, Ameriketara igesia, an berrogei urte inguruko bizikera tristea, eriotza... Denak, negarrez entzuten dute aitortza... Peru, apaiza, Igone... antxen daude saminki, doluz, kupiberaz, negarretan blai... Alkar barka, besarkadak, laztanak... Egon-tokiz aldatu, Peruren "kotxe" ederrean, Donosti eta zenbait lekoko miresgarriak, baztar ikusgarriak, zoragarriak azter txundituz, eguna igarotzen dute. Peruk eta Igone, oso lagunak egin dira, alkarrekin itz-jardun luzeak... Azkenean maite-mintzeraño... Apaizak ere amets "xelebre" bat egin du, bi gazteok ezkonduz... Igoneren ama-
jobian, Peruk lore-xorta eskeini du... Perun erreguz, Igone eta Apaiza antola dira Ameriketara joateko eran... Azkenengoz berri aundi-aundi onen aldarriketa: Peru eta Igone eskontzera dijoztela Ameriketan.

Alaxe gerta ere. Pozkarioz jositako ospakuntza egiztatzen da. Peru eta Igone, alkartuta, señar-emazte.

Eliz-jaietan, Elisabet "ama bitxi" izan da, pozik gaiñera. Igonek, Peruren il-
obirako lore xorta eder bat eramane du, egun gogoangarri artan.

Azkenengoz, esatekoa da Albizu jaunak eleberri au idaztean, Goierriko eta Urolaldeko euskalkiak "bat egiten" asmatu duala, ederki asko. Lazkaon jaiotako. Azkoitin bizi. Pentsalariak, araudia jarri zuten; "biotzak" ere badu bere araudia, euskalkiena. Eleberrian, batera datoz: bebarrua eta ezkaratzea, xestra eta burrukea, neska eta neskea, eta abar, adibidez.

JOXE A. GARATE

IKUSI, ENTZUN ETA IRAKURTEN DIRANAK

Osaba bizixak. (Tíos Vivos) Ondarroan.

Aots eroale. (Portavoz) Bizkai Irratikoak.

Timbreen indarraldia, datuak azaltzen diren lekuan berariaz agertzen dana izango da kasu guztietarako, tinbreak noiz ipini diren kontutan izan gabe.

(Eusko Jaurlaritza)

Itsas kondairaren goiberatutakoak, (Mixtificaciones)

Eguraldia gaur elegantea, naturala eta sana izan da.

(E.T.B. -93-V-31)

Euskal Herriaren sententzia.

Ejerzitoari desobedientzia.

(Kontzientzia Eragozpen Mugimendua)

Aministrazioaren erreformak egiteko kontsentsuaren bearritzana.

(E.T.B.)

Betirako gordeta. - (Vado permanente). Lekeitio.

Uneko kafea deskafetua.
Ikastolahunetako besteren
pertsona batek ikas ordu
barruan pilota toki honetan
jokatzea guztiz debekatuta dago.
Mungia'ko eskola publikoan

(Se prohíbe terminantemente
el uso de los frontones
a personas ajenas al Colegio
dentro del horario escolar.)

Frente Nacional. - BEKOKI ÑAZIOÑALA.

(Gernika'n, pankarta baten.)

Zein euskera mota erabili? Bizkaiera ez da egokia, "batuak"
baztertuta dau-eta,

(Entuna)

Ñik laburdiera erabilten dot, euskera jatorra dalako. Gaurko batua irugarren mundu-
duko dialekto bat da. (Federiko Kruwig-

(El Diario Vasco. -27-VI-93.)

ESALDI-JATORRAK

- Aren ederra irabazteko, au ta au egin nituan.
- LO-BETEAN nengoan!
- Gela ondo TXURITUA AL DAGO?
- Igeltsero batek EGIÑA EZ DANIK ez luke iñork esango.
- GAU-BERANDU iritxi giñan.
- ALBAIT LASTERREN emendik alde egin zagun.
- Lotsagabexkoanari ATEA EMAN ZION.
- BEGI-ATEETAN malkoak nituala...
- EZ-ARIAN BAI-ARIAN...
- URRATS-IXIL aldendu zan...
- Zer GERTA ERE, goiz ibilliko naiz.
- Gaur berandu jeiki zera!
- EZIN ESNATU, gizona!
- Antzerki onen AITZERIK BAI AL DEZU?
- Zer modu?
- PASIAK-PASA, NOBATTE-OR.
- Zu ez zera joango, NOSKI?
- JOANGO EZ NAIZ-BA!
- A ZER EGURALDIA DATORREN...
- Ez al zera íkaratzen?
- Ez! IKUSIAN oitua naiz.
- Medikiak, ATERA EGITEKO, Esan du.
- MUGAZ ATERATZEN BA'zerate, iritxiko zerate.
- Bidezabalak, berebillentzat; bidexkak, txirrindulari ta zaldizkoentzat; ALA BEREAN, jendearentzat.
- (Mus-jokoan) Ostegunero berdin, bi bitara, LAGUNEZ ALDATU GABETA-NIK...
- Noizbaten agertu zan.
- IÑOLAKO MODUZ ERE, ez zuan urreratu nai. GEROENEAN ERE, ONDO ESANAREN BIDEZ, BERENTARONTZ etorri zan.
- ORAINDIK-ORAIN.
- AN IZAN ZAN IZATEKOA!